

Partaidetzazko aurrekontuak Urola Erdian Kudeaketa publikoa egiteko modu desberdina

2014ko urtarrila





1. Sarrera.....	5
2. Prozesuaren ezaugarriak	6
2.1. Helburuak	6
2.1.1. Helburu nagusia.....	6
2.1.2. Helburu zehatzak	6
2.2. Prozesu metodologikoaren deskribapena	7
2.2.1. Prozesuaren faseak	7
2.2.2. Kronograma	13
2.2.3. Egitura eta funtzionamendua	14
2.2.4. Udalekin harremana eta koordinazioa	14
2.2.5. Komunikazioa.....	15
2.2.6. Parte hartzaileak (batzarretan, paperean eta on-line)	18
3. Herritarren ekarpenak	22
3.1. Azkoitia	24
3.1.1. Proposamenak	24
3.2. Azpeitia	26
3.2.1. Proposamenak.....	26
3.3. Beizama	28
3.3.1. Proposamenak.....	28
3.4. Errezil.....	29
3.4.1. Proposamenak.....	29
3.5. Zestoa.....	31
3.5.1. Proposamenak	31
3.6. Eskualdeko bilerak	33
3.6.1. Irizpideak	33
3.6.2. Proposamenak.....	35
3.6.3. Erabakia.....	52
4. Prozesuaren balorazioa	55
4.1. Herritarren balorazioa	55
4.2. Talde Sustatzailearen balorazioa.....	57
4.3. Udalen balorazioa	60
4.4. Aldundiko teknikarien balorazioa	61



4.5. Herritarrekin sarea. Taldearen balorazioa	63
4.6. Genero ikuspegiaz balorazioa	64
4.7. Alderdi komunikatiboaren balorazioa.....	66
4.7. Talde Eragilearen balorazioa.....	67
5. Esperientzia hedatzea	69
5.1. Prozesuaren diseinua.....	69
5.2. Komunikazioa eta hedapena	71
5.3. Egiturak	71
5.4. Metodologia.....	72
5.5. Parte-hartzea.....	75

Gipuzkoako Foru Aldundiak Urola Erdian partaidetzazko aurrekontuak garatzeko proiektua landu du, kudeaketa publikoa egiteko modu desberdina jorratzeko xedez.

Cimas eta elhuyar Aholkularitza jardun dira, elkarlanean, proiektua egikaritzen.





1. Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aurrekontuen zati bat modu parte hartzailean lantzeko esperientzia pilotua garatu du Urola Erdia bailaran. Horretarako, prozesua diseinatzeko eta Aldundiko teknikariek lanketa egiteko Prometea eta Cimas erakundeekin lan egin zuen uztaila eta iraila bitartean. Ondoren, esperientzia pilotua martxan jartzeko fasean, Cimas eta elhuyar Aholkularitza jardun gara prozesua teknikoki zein metodologikoki lantzen.

Esperientzia pilotua Urola Erdiko bost herrietan garatu da: Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoan. Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontutik 500.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko ahalmena eman zaie herritarrei, beti ere, Aldundiaren kompetentzien baitan, eta eskualde ikuspegia landuz.

Herritarren ekarpenak eurekin egindako lan-saioetan, zuzenean, nahiz idatziz jaso dira. Herri bakoitzean herritarrekin bilera bana egin da, eta eskualdeko beste bi bilera izan dira, partaidetza eta eztabaida sustatzeko eta erabakiak hartzeko balio izan dutenak. Herritarrek, gainera, euren ekarpenak egin ahal izan dituzte papereko zein internet bidezko galdetegiak betez.



2. Prozesuaren ezaugarriak

2.1. Helburuak

2.1.1. Helburu nagusia

Proiektuaren helburu nagusia honakoa izan da:

Partaidetzazko aurrekontuen proba pilotua Urola erdiko bost herritan egitea (Azkoitia, Azpeitia, Errezil, Zestoa, Beizama) eta herri horietako biztanleak subjektu aktibo bihurtzea herritarrek erabaki dezaten foru-aurrekontuaren zati bat (500.000 euro) zertarako erabili nahi duten.

2.1.2. Helburu zehatzak

Egitasmoarekin lotutako helburu zehatzak honakoak izan dira:

- Herritarrekin partaidetzazko aurrekontuen balio pedagogikoa lantzea, herritartasun eskola lantzeko bidean, hauen filosofia, funtzionamendua eta emaitza azalduz
- Partaidetzazko aurrekontuetarako egitasmoak aukeratzeko lagungarriak izan daitezkeen irizpideak finkatzea herritarrekin
- Aldundiaren aurrekontua lantzeko prozesu parte-hartzaile bat inplementatzeari buruz politikariek eta teknikariek duten pertzepzioa jasotzea.
- Foru-aurrekontuaren portzentaje bat eskualdean eta udalerrian zertarako erabili nahi den zehazteko proposamenak egitea, eztabaida zabaltzea eta erabakiak hartzea
- Egitasmoaren balorazio orokorra egitea 2014rako planteamendu metodologikoa diseinatzeko lagungarri izango dena
- Partaidetzazko aurrekontuak egiteko oinarrizko baldintzak ezartzea



2. Prozesuaren ezaugarriak

2.2. Prozesu metodologikoaren deskribapena

2.2.1. Prozesuaren faseak

2.2.1.1 Prozesuaren diseinua

2013ko uztailan zehar hainbat lansaio egin ziren Aldundiko teknikariek, aurrekontu parte hartzaileen prozesua diseinatzeko eta Aldundian inplementatzeko bideragarritasunari buruzko pertzepzioa jasotzeko.

Honela laburbil daitezke lansaio horien helburuak:

- Aurrekontu parte hartzaileen filosofia, funtzionamendua eta emaitzak azaltzea.
- Aldundiaren aurrekontua lantzeko prozesu parte hartzaile bat inplementatzeari buruz politikariek eta teknikariek duten pertzepzioa jasotzea.
- Aldundirako aurrekontu parte hartzailea inplementatzeko eredia definitzea.
- Aurrekontu parte hartzailea egiteko oinarritzko baldintzak ezartzea: parte hartzeko prozesuan sartuko den zenbatekoa, aurrekontu partidak, arloak...

Hauek izan ziren tratatu eta landutako alderdiak:

- Foru aurrekontuaren ezaugarriak eta berezitasunak aztertzea eta xehatzea: eskumenaren esparrua, sarrera eta gastuen politika, udal aurrekontuekiko erlazioa, etab.
- Behar den informazio teknikoa definitzea.
- Esperientzia pilotu bat aurrera eramateko irizpideak eta markoa eraikitzea: lurralde eremua definitzea, parte hartzean jarriko den zenbatekoa definitzea, aurrekontu partidak definitzea...
- Prozesuan inplikaturako subjektuak eta garatu beharreko zereginak eta paperak xehatzea.

2.2.1.2 Informaziorako eta prestakuntzarako saioak

2013ko irailean 4 saio egin ziren hainbat arlotako agenteei aurrekontu parte hartzaileei buruzko informazioa/prestakuntza emateko. Agente hauekin egin ziren saioak:

- Aldundiko teknikariak (2 talde)



2. Prozesuaren ezaugarriak

- ⇒ Eskualdeko Udalak (Alkateak eta udal teknikariak)
 - ⇒ Batzar Nagusietako alderdi politikoak
 - ⇒ Aldundiko gobernu taldea
- *Aurkezpena Eranskinetan dago.

2.2.1.3 Komunikazioa eta zabalkundea

2013ko irailean zabalkunde eta komunikazio lanak egin ziren Aldunditik eta Eskualdeko Udaletatik. Kartelak eta liburuxkak egin ziren, gutunak bidali ziren, eta kanpoko Laguntza Zerbitzu Teknikokoek komunikazio dossier bat landu zuten.

*Zabalkunde eta komunikazioko dosierra Eranskinetan dago.

2.2.1.4 Proposamenak jasotzea

2013ko urrian, herritarren proposamenak jasotzeko prozesua ireki zen, 3 mekanismoren bidez:

- ⇒ Udalerrri bakoitzean herritarren tailer bat eginez, helburu hauekin:
 - Herritarrei aurrekontu parte hartzailearen proiektuari eta prozesuari buruzko informazioa ematea: proposamenak lantzeko modua (online fitxak eta paperezkoak); lehentasunak erabakitzea; berrikuspen teknikoa; onespena.
 - Herritarrei proposamenen baldintzen berri ematea: 500.000 euroko muga; eskualde mailako proposamenak (ez herri mailakoak), ahal dela, udalerrri bati baino gehiagori onura ekarriko diotenak.
 - Hausnartzea eta Eskualdearentzako proposamen nagusia adosten saiatzea.
 - Modu parte hartzailean definitzea nola jaso ahalik eta proposamen gehien (baldintzak betetzen dituztenak) ahalik eta pertsona gehien eta ahalik eta desberdinenen parte hartzearekin. Nola iritsi normalean parte hartzen ez duten kolektibo edo sektoreetara (gazte, emakume, adineko, eta abarregana).
 - Udalerrri guztietako herritarrek osatutako talde motor bat sortzea prozesu guztiaren segimendua egiteko.



2. Prozesuaren ezaugarriak

→ Proposamenak jasotzeko gutunontziak, bereziki horretarako prestatutako proposamen fitxak biltzeko.

→ Proposamenak Internet bidez online jasotzea.

*Erantsita ematen dira tailerretarako planteamendua, proposamenak jasotzeko fitxa eta gutuna eta proposamenak online jasotzeko formularioa.

2.2.1.5 Herritarren Talde Sustatzailearen eraketa

Udaletako tailerrak egiten ari zirenean Talde Sustatzaile bat sortu zen udalerrri bakoitzeko ordezkariekin, hamar delegatu guztira (herri bakoitzeko bi), genero ekitatea betez.

Talde Sustatzaile horren egitekoak ziren:

→ Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarrean aurkeztuko liratekeen proposamenak lehenesteko irizpideak definitzea.

→ Bideragarritasun txosten teknikoak aztertzea eta baloratzea.

→ Lehenetsitako proposamenen hautapen bat aurkeztea Eskualdeko batzarrean, txosten teknikoetan oinarrituta, azken erabakia hartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiari behin betiko proposamenak aurkezten parte hartzea.

→ Prozesuaren amaierako ebaluazioan parte hartzea.

2.2.1.6 Proposamenen antolaketa eta sistematizazioa

2013ko urrian, proposamenak jasotzeko epea amaituta, arloka sailkatu ziren proposamenak. Arlo hauetan banatu ziren:

→ Kultura

→ Kirola

→ Gazteria eta haurrak

→ Ingurumena

→ Mugikortasuna eta irisgarritasuna

→ Herritarren parte hartzea

→ Gizarte politika

→ Berdintasun politika

→ Garapen ekonomikoa



2. Prozesuaren ezaugarriak

- Euskararen sustapena
- Memoria historikoa berreskuratzea
- Turismoa

Gainera, proposamen bakoitzaren jardura eremua identifikatu zen (eskualdea edo udalerrria), eta proposamen bakoitzaren egilearen edo egileen udalerrria eta eskumen esparrua (foru aldundia, udala, Eusko Jaurlaritza, ekimen pribatua...) zehaztu ziren.

2.2.1.6 Lehentasunak erabakitzeko irizpideak ezartzea

2013ko urriaren amaiera aldera ezarri ziren proposamenen lehentasunak erabakitzeko irizpideak. Azkenean 100 proposamenetik gora jaso zirenez eta erabilgarri zegoen aurrekontua 500.000 eurokoa zenez, nahitaezkoa zen lehentasunak erabakitzea. Kanpoko Laguntza Zerbitzu Teknikoak lehentasunak erabakitzeko irizpideen proposamena aurkeztu zuen, irizpide horiek Talde Sustatzaileak landu zituen eta azkenean Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarrean aurkeztuko ziren irizpideak ezarri zituen.

* Ikus hasierako irizpide proposamena eranskinetan, eta eskualdeko bileren atalean onartutako irizpideen zerrenda.

Irizpideak definitu ondoren, jasotako proposamenak antolatu zituen kanpoko Laguntza Zerbitzu Teknikoak, proposamen bakoitzari betetzen zituen irizpideak esleituz, Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarrean parte hartzen dutenei hautapena errazteko.

2.2.1.7 Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarra

2013ko azaroaren 6an egin zen Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarra, interesdun guztientzat irekia. Proposamenak eta lehentasunak erabakitzeko irizpideak aurkeztu ziren, eta, haztapan sistema baten bidez, batzarreko kide bakoitzak hautapen bat egin ahal izan zuen, bere iritziz lehentasun handiena zuten proposamenekin. Azkenenean proposamenen ranking bat ezarri zen.



2. Prozesuaren ezaugarriak

2.2.1.8 Proposamenen azterketa tekniko eta bideragarritasun txostenak lantzea

Proposamenen lehentasuna erabakitakoan, Aldundiko teknikariek proposamen horien bideragarritasun txostenak egin zituzten, Departamentuka antolatuta. Kanpoko Laguntza Zerbitzu Teknikoak bideragarritasun fitxa bat eman zien teknikariei, proposamen bakoitza hiru aldetatik azter zezaten: eskumen bideragarritasuna, bideragarritasun tekniko eta bideragarritasun ekonomikoa (proposamenaren kostu orientagarriarekin batera). Gainera, azalpenak emateko eta zalantzak argitzeko bilera bat egin zen hainbat Departamentutako teknikariek.

*Bideragarritasun fitxa Eranskinetan dago.

2.2.1.9 Batzar Nagusietako alderdi politikoei proposamenen berri ematea

2013ko azaroaren 21ean bilera bat egin zen Batzar Nagusietako alderdi politikoekin prozesuan egindakoa azaltzeko: proposamenak jasotzea, lehentasunak erabakitzeko irizpideak, Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarra, bideragarritasun txosten teknikoak...

2.2.1.10 Teknikarien eta Talde Sustatzailearen arteko bilera bideragarritasun txostenak azaltzeko

2013ko azaroaren 26an talde motorrekoak Aldundiko teknikariek bildu ziren, proposamenen bideragarritasun txostenak baloratzeko eta zituzten zalantzak argitzeko.

2.2.1.11 Behin betiko proposamenak erabakitzeko eta hautatzeko eskualdeko batzarra

Azaroaren 28an egin zen Aldundiko aurrekontuan sartuko diren Behin betiko proposamenak erabakitzeko eskualdeko batzarra. Txosten teknikoetan oinarrituta, proposamenen azken hautapenari buruz eztabaidatu zen, aldez aurretik erabakitako proposamenen lehenespena eta kostua kontuan izanda. Batzar horretatik atera zen Aldundiko aurrekontuan sartzeko proposamenen behin betiko zerrenda.



2. Prozesuaren ezaugarriak

2.2.1.12 Talde Sustatzaileak Batzar Nagusietako alderdi politikoei proposamenen berri ematea

Abenduaren 9an talde motorrekoak Batzar Nagusietako alderdi politikoen ordezkariekin elkartu ziren, lehenetsitako proposamenen berri emateko eta lehentasunak erabakitzeko irizpideak azaltzeko.

2.2.1.13 Prozesua ebaluatzeko saioak

2013ko abenduan zehar egin zen Urola Erdiko aurrekontu parte hartzailearen prozesuaren ebaluazioa. Ebaluazio saio bat egin zen agente hauetako bakoitzarekin:

- Eskualdeko udalak
- Talde Sustatzailearekin
- Aldundiko teknikariak
- Herritarrekin sarearekin

Talde horietako bakoitzarekin prozesu osoa, oro har, ebaluatu zen, bakoitzak jokaturako paperaren berezitasunekin batera, eta lortutako ikaskuntza eta etorkizunean esperientziarekin aurrera egiteko orientazioak aztertu ziren. Horretarako, kanpoko Laguntza Zerbitzu Teknikoak ebaluazio fitxa bat prestatu zuen, ebaluatu beharreko elementuak edo alderdiak jasotzeko.

*Eranskinetan dago ebaluazio saioen proposamena



2. Prozesuaren ezaugarriak

2.2.2. Kronograma

		UZT	IRA	URR	AZA	ABE
PROZESUA ANTOLATU	Prozesuaren diseinua	■	■	■	■	■
	Informazioa / prestakuntza saioak	■	■	■	■	■
	Komunikazioa eta zabalkundea	■	■	■	■	■
GARAPENA	Proposamenak jasotzea	■	■	■	■	■
	Talde Sustatzailearen eraketa	■	■	■	■	■
	Proposamenak antolatzea	■	■	■	■	■
	Lehentasunak erabakitzeko irizpideak ezartzea	■	■	■	■	■
	Lehentasunak erabakitzeko eskualdeko batzarra	■	■	■	■	■
	Proposamenen azterketa teknikoa	■	■	■	■	■
	Batzar Nagusiei berri ematea	■	■	■	■	■
	Teknikari eta Talde Sustatzailearen arteko bilera	■	■	■	■	■
	Behin betiko aukeraketa egiteko eskualdeko batzarra	■	■	■	■	■
	Talde Sustatzaileak Batzar Nagusiei berri ematea	■	■	■	■	■
BUKAERA	Prozesua ebaluatzeko saioak	■	■	■	■	■



2. Prozesuaren ezaugarriak

2.2.3. Egitura eta funtzionamendua

Urola Erdiko esperientzia pilotua garatzeko behar izan diren 4 hilabeteetan, proposamenak jaso, aztertu eta lehenesteko metodologia bat inplementatu da, zeuden epeak kontuan izanda. Bi mailatan lan egin da: herri mailan (udalerrri bakoitzean proposamenak biltzeko tailerrak, gutunontzi fisikoak eta lineakoak eta antzekoak antolatuz) eta eskualde mailan (proposamenak lehenesteko eta hautatzeko batzar parte hartzaileak antolatuz).

Gainera, Talde Sustatzaile bat eratu da, eskualdeko 5 udalerrietako herritarren ordezkariak osatua, lehenesteko irizpideak ezartzen eta proposamenak analizatzen laguntzeko. Talde Sustatzailearen funtzionamendua hainbat bileraren bidez bideratu da, gai hauek tratatzeko: lehenesteko irizpideak ezartzea, Aldundiko teknikariak egindako proposamen ebaluazio teknikoak aztertzea eta prozesu osoaren amaierako ebaluazioa egitea. Aldundiaren eta lantalde teknikoaren sostengua izan du une oro.

Aldundiko teknikariek ere lan egin da, bai proiektua diseinatzeko fasean, bai proposamenen azterketa eta berrikuspen teknikoan, eta baita prozesuaren amaierako ebaluazioan ere.

Bestalde, Eskualdeko Udalekin koordinatzeko lana ere egin da (hurrengo puntuan azaltzen den bezala) eta Batzar Nagusietako alderdi politikoei proiektua azaldu zaie eta egindako aurrerapenen berri eman zaie.

Kanpoko Laguntza Zerbitzu Teknikoan hiru entitate aritu dira: Prometea, Aldundiko teknikariek aurrelana egin dituen aholkularitza; elhuyar Aholkularitza, etengabe laneko zelaian eta landa-lana egiten jardun duena; eta CIMAS, diseinu metodologikoaz, plangintza estrategikoaz eta aholkularitza arduratu dena.

2.2.4. Udalekin harremana eta koordinazioa

Aurrerago aipatu dugun gisan, prozesuaren diseinuaz eta aurrelanean Prometea eta Cimas enpresak arduratu ziren, 2013ko uztaila eta iraila bitartean. Irailaren 11n bilera egin zen Azpeitiko udalean proiektuan parte hartuko zuten Udalerrietako ordezkari politikoekin. Bilera horretan ordura arte egindako aurrelaren eta egitasmoaren berri



2. Prozesuaren ezaugarriak

eman zitzaien Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Errezil eta Beizamako arduradun politikoei. Une horretatik aurrera, elhuyar Aholkularitzak hartu zuen landa-lana egiteko ardura eta CIMAS diseinu metodologikoaz eta gainerako alorrez arduratu da.

Hurrengo egunetan, bilerak egin ziren Udalerrri bakoitzeko alkate eta parte-hartze arduradunekin, prozesua abiarazteko xehetasunak lotzeko; hala nola:

→ Prozesua abian jartzeko irizpideak:

- Orain arte herrietan izan diren esperientziak aintzat hartu.
- Udazkenean tokian tokian egitekok ziren prozesuekin bateratu.
- GFaren eskumenen zerrenda eta azalpena idatzi.
- Gainerako alderdi politikoetako ordezkariari proiektuari buruzko informazioa eta parte hartzeko gonbidapena igorri.

→ Herrietako lan-saioak lotu: data, ordua, tokia...

→ Komunikazio-plana adostu.

→ Herritarrak aktibatze bideak landu.

Herri bakoitzean egindako bileren ondoren, harreman zuzena izan zen posta elektronikoz eta telefonoz, aipatutako xehetasun guztiak lotzeko.

2.2.5. Komunikazioa

Proiektuaren hasieran hutsune nabaria sumatu zen komunikazio arloan. Aurreikusia zegoen arren, ez zen prentsaurrekorik egin. Proiektua hasi ahala, hori indartzen joan zen, eta zuzendu egin zen komunikazio-lana.

Nolanahi ere, etxe guztietara esku-orria banatu zen, eta herrietako hainbat gunetan postontziak jarri ziren, herritarrek euren ekarpenak bideratu zitzaizkien.

Ekarpenak on-line egiteko ere webgunea abian jarri zen. Egun gutxi egon zen martxan, eta arazo teknikoak ere eman zituzenez, herritar gutxi erabili zuen bide hau bere ekarpenak egiteko.

Bestelako komunikazio ekintzak ere egin ziren prozesuan zehar:



2. Prozesuaren ezaugarriak

⇒ Urriaren 30ean prentsaurrekoa egin zen Zestoan, Udaleko pleno aretoan, goizeko 11:30ean. Bertan parte hartu zuten: Martin Garitano (Diputatu Nagusia), Arantxa Ruiz de Larrinaga (parte hartze zuzendaria), Jon Abril (Elhuyar) eta eskualdeko alkateek.

Honako mezua eman zen:

- Egitasmoaren funtsa eta garrantzia Gipuzkoa berria eraikitzeko. Beste modu batera egindako kudeaketa (Garitano)
- Egitasmoaren bidea zein den (Arantxa)
- Alkateen balorazioa
- Proposamen bilketaren balorazioa (Jon Abril, Arantxa)
- Proposamenen zerrenda
- Egun berean talde motorraren bilera izango dela
- Azaroaren 6ko batzarrera deitu, bozka eman dezaten

⇒ Herri bakoitzean panel bat jarri zen, aurkeztutako proposamenak jasoz.

⇒ Azaroaren 4ean, Talde Sustatzailearen agerraldia, Azpeitiko udaletxean. Bertan azaldu zuten:

- Nortzuk diren
- Ze lan egin duten
- Euren esperientziaren balorazioa
- Egitasmoaren gaineko iritzia
- Azaroaren 6ko deialdia, egin.

⇒ Azaroaren 11n, lehenetsitako ekintzen zerrenda zabaldu zen, ohar bidez.

- Udaletara panel berria bidali zen
- Azaroaren 28ko batzarrerako deialdia egin zen panelen bidez

⇒ Abenduaren 2an, 11.00etan prentsaurrekoa eman zuen Aldundiak: Martin Garitano, Helena Franco eta Arantxa Ruiz de Larrinaga. Bertan jorratu ziren:

- Aldundiak prozesuaz egiten zuen balorazioa



2. Prozesuaren ezaugarriak

- Urola erdiko herritarren zerrenda aurkeztu
- Egin beharreko tramitea
- Datorren urteko asmoak

⇒ Herrietara onartutako proposamenekin hirugarren panela bidali zen.

Honako komunikazio-euskarriak erabili dira:

- Eskuorri informatiboa, betetzeko fitxa eta guzti, etxe guztietako postontzietara.
- Irrati-kuñak (2 txanda: Azkoitiko bilera eta Azpeitiko bilera: urriak 28-azaroak 6; azaroak 18-azaroak 28): Euskadi Irratian eta Info Zazpin.
- Publizitatea paperean, Uztarrian.
- Banerrak Uztarrria eta Hitzaren edizio digitaletan (bi txanda hamar egunekoa bakoitza: urriak 28-azaroak 6; azaroak 18-azaroak 28).
- Panelak: udal eta kultur etxeetan (hiru: 124 proposamen, 30 proposamen eta 7 proposamen).
- Proposamenen orriak (124 eta 30ekoak) jendearen artean banatzeko (panelen osagarri, panel txikiak etxera eramateko).
- Bi zerrenden orriak banatu eta buzoneatzeko: 124 proposamen eta 30 proposamen.

Komunikabideei dagokionean, informazio jarraipena zehatza izan da eta markaturiko data guztiak jaso dituzten hedabideek. Bereziki Diario Vascok, Uztarriak eta Hitzak. Bai, aurre deialdiak eta baita ondorengo albiste eta kronikak ere.

⇒ Gipuzkoa mailan:

Egitasmoaren aurkezpena (Zestoan) eta azken proposamenaren aurkezpena (Donostian) hedabideek ondo jaso dute. Hauek prentsaurrekoetako bakoitzera bertaratutako komunikabideak:

- Zestoan: DV lokala, Gara, Euskadi Irratia, Hitza, Uztarrria, Hamaika TB, Noticias de Gipuzkoa lokala.




2. Prozesuaren ezaugarriak

- Donostian: Euskadi Irratia, Radio Euskadi, DV, Noticias de Guipuzcoa, Ser, Berria, Gara, Onda Cero, Hamaika TB.

2.2.6. Parte hartzaileak

161 pertsonak hartu parte dute, modu batera edo bestera, prozesuan. Modu honetan banatu da parte hartze hori:

Denetara




Grafikoan ikus daitekeen moduan, emakumeen aldean, gehiago dira parte hartu duten gizonak. Nolanahi ere, nahiko orekatua egon da emakume (% 45,6) eta gizonen (%54,4) arteko partaidetza.



2. Prozesuaren ezaugarriak

Parte-hartzeko moduaren arabera




Partaide gehien herrietan zein eskualde-mailan egin diren bileretan izan dira (partaideen % 65,6), partaideen hirutik bik zuzenean parte hartu baitute. Paperezko galdetegia erantzutea izan da bigarren biderik zabalduena (%28,8), eta on-line aukeratu zutenak gutxiengo bat izan ziren (%5,6). Nolanahi ere, kontuan izan behar da, on-line ekarpenak egiteko epea txikia izan dela, plataforma teknologikoak emandako arazoengatik, eta komunikazioan berandu eragin zelako. Deigarria da, nolanahi ere, emakumeen parte-hartzea oso desberdina izan dela kanalaren arabera. Saioetan askoz apalagoa izan den bitartean, paperean gizonenaren ia bikoitza izan da, eta on-line, berriz, erdia.



2. Prozesuaren ezaugarriak

Parte-hartzaileak adin tarteka




Partaideen adinari erreparatuta, agerikoa da 25 eta 65 urteen artean kokatzen direla partaideen hiru laurdenak (% 74,4), eta adina erantzun ez dutenen kopuru altua ikusirik (% 13,8), oso gutxi izan dira 65 urtetik gorako (% 6,3) eta 25 urte azpiko (% 5,5) partaideak. Esperientzia beste eskualde batzuetara hedatuz gero, adin-tarte horietako herritarrengan iristeko ahalegin berezia egin beharko da, horretarako beharrezkoak diren estrategiak landuz.



2. Prozesuaren ezaugarriak

Parte-hartzaileak herrika



Partaideen jatorriari dagokionean, desoreka handiak egon dira prozesuan. Azpeitia da eskualdeko herririk populatuena, eta partaidetza oso txikia izan du. Nabarmentzekoa da herrian egindako saioan izandako partaidetza eskasa, hainbat faktorek eraginda: beste parte-hartze prozesu batzuk abian egotea herrian; komunikazioan egondako hutsuneak; herri handietan eragiteko ahalmen txikiagoa eta abar. Beste herri batzuetan, aldiz, partaidetza esanguratsua lortu da, eta bereziki dira nabarmentzekoak Zestoa, Errezil, eta Beizamako datuak (azken honetakoan zenbaki absolutuak hain handiak ez izanagatik ere, herrian bizi den jendeari erreparatuta, ehunekotan datu esanguratsua da).



3. Herritarren ekarpenak

Arestian aipatu dugun moduan, herritarren ekarpenak bilera presentzialetan zein fitxak betez (paperean eta on-line) jaso dira. Erabakiak, aldiz, bileretan hartu dira, hortaz, paperekoa eta internet proposamenak egiteko bidea baino ez dira izan. Urriko lehen astean bilera bana egin zen eskualdeko herri bakoitzean, herritarrei prozesuaren berri eman, eurekin batera ekarpenak landu, eta ekarpen gehiago jasotzeko bideak aztertzeko. Herri bakoitzeko bileretara bertaratutakoen artean bina pertsona aukeratu dira Talde Sustatzailea osatzeko.

Azaroaren 6an eta 28an eskualde-mailako bi bilera egin ziren, herritar denei zabalik hauek ere. Eskualdeko lehendabiziko bileran herrietako bost batzarretan, zein paperez nahiz on-line bidez jasotako ekarpenak aurkeztu ziren. Aurrez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kompetentziakoak ez ziren proiektuak baztertu ziren, salbu, kompetentziakoak ez izanda ere, udalei diru-laguntza emanez bideratu zitezkeenak. Proiektuak izaeraren (eskualdeko proiektuak edo herrikoak ziren), eta arloaren (Aldundiko zein departamentutan kokatuko litzatekeen) arabera sailkatuta aurkeztu ziren, aurrez talde sustatzaileak proposaturiko irizpideak aintzat hartuta, irizpide gehien betetzen zituztenetik gutxien betetzen zituztenetara ordenaturik. Herritarrek, bilera horretan, proiektuak lehenetsi zituzten, eta ondoren, puntuaziorik altuena jaso zuten 40 proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu ziren, bertako teknikariek horiek baloratu eta ekonomikoki kuantifika zituzten. Bigarren bileran, berriz, azaroaren 28koan, Talde Sustatzaileak egindako proposamena landu zen, eta 500.000 euroak zertan inbertitu erabaki zen.

Hauek izan ziren herritarrekin zuzenean egindako bilerak:



3. Herritarren ekarpenak

HERRIETAKO BILERAK	
Urriak 7, astelehena	Zestoa
Urriak 8, asteartea	Errezil
Urriak 9, asteazkena	Azkoitia
Urriak 10, osteguna	Azpeitia
Urriak 11, ostirala	Beizama

ESKUALDEKO BILERAK	
Azaroak 6, asteazkena	Azkoitian
Azaroak 28, osteguna	Azpeitian

TALDE SUSTATZAILEAREKIN	
Urriak 30, asteazkena	Azpeitian
Azaroak 26, asteartea	Azpeitian

Herrietan egindako bileretan jasotakoak bildu ditugu hemen, laburbilduta:



3. Herritarren ekarpenak

3.1. Azkoitia

Azkoitiko elkargunean egin zen bilerara 14 herritar bertaratu ziren, 10 gizon eta 4 emakume, batez ere, 26 eta 70 urte artekoak, hainbat, gainera, elkarteen ordezkari gisa jardun zirenak. Hauek izan ziren bertan landutakoak:

3.1.1. Proposamenak

- Urola Erdirako obretako hondakinetarako transferentzia-planta bat egin. Egun, Bizkaira eraman behar izaten dira, eta horrek ekarri du, bereziki obra txikietako hondakinak, nonahi agertzea.
- Azkoitiko *Garbigunea* handitu, berritu eta ordutegia zabaldu.
- Hiri-hondakinak derrigorrez sailkatuta jasotzeko sistema jarri.
- Elikadura burujabetza sustatzeko plangintza bat egin, baserri gunek indartzeko, eta nekazaritzako lurak babestu eta berreskuratzeko.
- Tokiko kontsumoa bultzatzeko plangintza egitea, bertako merkatariekin eta kontsumo burujabetza sustatuz.
- Burujabetza energetikoa lortzeko plangintza bat garatu, tokiko energiari lehentasuna emanez: energia hidraulikoa, biometanizazioa (hondakinetatik), biomasa...
- Eskualdeko historia berreskuratzeko plangintza bat garatu (Aurre-historia, Europako jatorria), kontuan hartuz eskualdean dauden baliabideak: Ekain, Praileaitz, Urteaga, Munohaundi, euskal mitologia, bertako euskara... Turismo jasangarri plangintza batekin lotu.
- Basoen aprobetxamendu integralerako antolaketa-plan bat egin Urola bailara osorako, baserri-bide, mendi-bide, bidegorri, erreka eta ibaien mantentze-lanak jasokok dituenak. Horretarako lanpostu berriak sor daitezke, edota gizarte-laguntza jasotzen dutenekin lan egin.
- Baserri-bideak asfaltatu.
- Herriko berdeguneetan bertako zuhaitz eta landaredia landatu.
- Berrikuntza teknologikoa sustatu.
- Eraikin publiko zein pribatuak, eta hirigintza, oro har, hauren beharretara egokitu. Azterketa bat egin eta jarraibide batzuk markatu.
- Haurrentzako parke estali bat egin.
- 12-16 urte arteko gazteentzako aterpe bat.



3. Herritarren ekarpenak

- ⇒ Azkoitia barruko bidegorriak osatu eta lotu.
 - ⇒ Urola Erdirako immigranteak gizarteratzeko plana garatu, eta teknikari bat jarri zeregin horietarako. Bereziki, hauen osasun, lan, hezkuntza eta kultura-jardueretarako sarbidea erraztu.
 - ⇒ Bailarako pobrezia-aren estudio soziologikoa egin.
- Bakarka jaso ziren beste proposamen batzuk
- ⇒ Aldaketa klimatikoa eragozteko ekintzak bultzatu.
 - ⇒ Baserrietako saneamendu-sarea ipini eta antolatu.
 - ⇒ Anbulatorioa.



3. Herritarren ekarpenak

3.2. Azpeitia

Azpeitiko San Agustin aretoan egindako bilerara 12 herritar agertu ziren, 11 gizon eta emakume bat, gehienak 35-50 urte artekoak. Bertan proposamen hauek landu ziren:

3.2.1. Proposamenak

- Energia berriztagarrien ekoizpena bultzatu: energia fotoboltaikoa, energia hidroelektrikoa, geotermikoa, eolikoa...
- Turismo berdea bultzatu: urtegia eta eskualdeko pistak zainduz. Matxinbentan dagoen bidegorria amaitu (250 m.). Aisialdirako gune bihurtu: jateko guneak eraiki, arrantzarako baliabideak jarri, itsasontzi motor-gabeak baimendu (kanoak...).
- Langabetuentzako ikastaroak antolatu
- Alokairu sozialeko etxe-parkea areagotu, behar handiena dutenentzat.
- Berdura plaza eraberritu, eta nekazaritzako proiektu bat landu bertan, azoka iraunkor batekin, lehen sektorea bultzatzeko, zuzeneko salmenta egiteko (herritarrei, ikastetxeetan, jatetxeetan...). Informazio eta suspertze-bulego bat
- Nekazaritza ekologikoaren ustiapena eta produktu horien kontsumoa bultzatu, landa-eremua eta baserriak berreskuratzuz.
- Eskualdeko garapen ekonomikorako plan oso bat egin, Azpeitiko egoera oso txarra dela aintzat hartuta. Horrek eskatzen du, besteren artean, formazio eskaintza zabaltzea (egun altzairuari erabat lotua dagoena, dibertsifikatzea), eta ikerketa eta garapenean inbertitzea (zentro bat eraiki horretarako). Inkubadora industrialak sustatzea, sektore berrietara egokitzeko.

Bakarka jaso ziren beste proposamen batzuk

- Eskualdeko mendietan bidezidorrak txukundu, eta mendi-ibilbide erakargarriak egin.
- Herritarren partaidetza bultzatzeko tresnak eta dinamikak bultzatu, bereziki teknologia berrien bidetik. Sistema bat osatu partaidetza hori errazteko (Suitzan bezala, adibidez).
- Birziklatze-enpresak sustatu.
- Urrestillara bidegorria egin.
- Museo arkeologikoa egin.
- Etorkinak integratzeko harrera-ikastaroak eskaini.



3. Herriarren ekarpenak

⇒ Azpeitiko herriko plaza oinezkoen eremu bihurtu.

⇒ Herri-gunetik kanpo dauden auzoetan herri-ekimenerako lokalak behar dira.

⇒ Auzoen inguruan interesa sortu, bertako baliabideak sustatu (ingurumena, kirola, ehiza, arrantza...).

⇒ Herri eta auzoen arteko garraio-publikoa sustatu (Beizama, Nuarbe, Atzerreka, Matxinbenta...). Donostiara ez ezik, beste hiriburuetara garraio publikoa ere sustatu (Bilbo, Gasteiz...)

Birziklatze-tasak igo (zero zabor lortzeko). Kanpainak egin.

Oroimen historikoaren sustapena. Herri historikoa izaki, izan garenaren bertsio ofiziala eraikitzeko beharra. Programa bat landu historia ikertzeko eta zabaltzeko.

Enplegua sortzeko kooperatibak bultzatu.

Udalentzat baliabide gehiago, proiektuak zuzenean kudeatu ahal izateko.



3. Herriarren ekarpenak

3.3. Beizama

Beizamako udaletxean 8 lagun elkartu ziren, 5 gizon eta 3 emakume, 30 eta 65 urte artekoak.

3.3.1. Proposamenak

- Garraio publikoa hobetu. Egungo sistema mantendu eta hobetu, Udalak kudeatu beharrean, Aldundiak kudeatuz. Eskola txikietara garraioa bermatu.
 - Natura eta ondarea kudeatu, turismorako baliabideak sortuz. Herriko ondarea birgaitu (errota, bereziki), eta gainontzeko elementuekin (basoa, nagusiki), plangintza diseinatu, turismoa erakartzeko. Natura, kultura eta etnografiarekin loturiko bide-sareak sortu eta erakarguneak sortu (merenderoak, erreketan igerileku naturalak...)
 - Herriko basoak kudeatzeko eta garatzeko plan bat egin (erakunde publikoak eta jabe pribatuak), biomasa aprobetxatzeko. Eraikin publikoren batean instalazioa egin, eta bertako basoetako biomassarekin elikatu. Egungo ustiaketa eredu berraztertu, onurarik ez diolako ekartzen herriei.
 - Nekazariak egiten duten lana aitortu, gizarte osoarentzat duen onura errekonozituz. Herrietan bizi ahal izateko bide gisa, nekazaritza eta abeltzaintza sustatu. Nekazarien artisautza-produkzioa erraztu eta babestu (produktore txikiek inbertsio handiegirik egin behar ez dezaten).
 - Herri txikietan kultura jarduerak sustatu. Herrietan barnako kultura-zirkuituak bultzatu, ekitaldi guztiak ez daitezen eskualde-buruetara mugatu. Sortzaileak eta artista berriak bultzatu, eta hauen lana herri txikietan barna mugitu, eta eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatu.
- Bakarka jaso diren beste proposamen batzuk
- Adineko pertsoneri arreta, bereziki baserrietan bizi direnei.
 - Haur eta gazteentzat programak landu, herrietako etorkizuna diren neurrian, bertan bizitzeko erraztasunak eman.
 - Euskara ikasten ari diren herri txikietako biztanleentzat diru-laguntza bereziak (garraio-bekak, herri handiek eskaintzen dituzten matrikularako diru-laguntzak...).
 - Etxebizitza hutsak alokatzeko programa bultzatu. Etxe eta baserri hutsak birgaitzeko laguntzak eman, alokairu soziala bultzatuz...



3. Herritarren ekarpenak

3.4. Errezil

9 emakumek eta 7 gizonen parte hartu zuten Errezilgo kultur etxean egindako bileran, 25 eta 70 urte artekoak. Auzolanen jarduteko elkarteak osatuta dute herrian eta ohitura dute horrela lan egiten. Herriko egoera ekonomikoa kontuan hartuta, hainbat lanetarako finantzazioa eskuratzea eta lanak elkartetik bideratzea eta garatzea proposatu zuten.

3.4.1. Proposamenak

- Baserri-bideak konpontzea: Aspaldi eginak izanik oso egoera eskasean daude. Auzolanen konpontzea proposatzen dute; hau da, Aldundiak dirua esleitzea eta lanak herritarrek burutzea, Udalaren gidaritzapean.
- Ur-hornidura hobetzea: Oso egoera irregularrean dago; zenbait tokitan arazoak izaten dituzte lehorte-garaietan eta herri-kaskoko zenbait etxetan sarritan izaten dituzte arazoak. Gainera, diru-laguntza bati esker instalazio batzuk berriro ziztuzten, baina amaitu gabe daude eta ez dute egoera horretan ezertarako balio. Hori dela eta, Ur-sarea konpontzea eta amaitzea proposatzen dute.
- Herri-eskolako irisgarritasuna hobetzea: Duela 19 urte eraiki zuten arren, irisgarritasun gabezia handiak ditu. Igogailuaren aukera baztertuta dago, mantentze-gastuak altuegiak lirakeelako, baina arrapalen proiektua eginda dago.
- Herrian enplegua sortzeko aukerak aztertu; hala nola:
 - Haurrentzako dinamizatzailea kontratatu.
 - Eskolako jangela herritik kudeatu, bertako elikagaiak eta bertako sukaldariarekin
 - Liburutegirako dinamizatzailea kontratatu.
 - Baserrietako seinaleak eta postontziak egiteko lanak herrian esleitu.
 - Hondakinen kudeaketarako Zabor-etxola eta hura kokatzeko zoruaren prestaketa-lanak herrian esleitu.
 - Eskualde-mailako oreka lortzeko elkarrekin lan egitea.
 - Etxeetako ur zikinak baliabide naturalen bidez araztu. Une honetan ez dago saneamendurik.
 - Autoak errepidean polikiago joateko sistemak jartzea herri-kaskoko errepide-eremuan. Semaforoa badago, baina ez du eraginik ez baita erabiltzen.
 - Baliabide naturalak baliatu –erreketo ur-jauziak bereziki– energia sortzeko, esaterako herriko argiteria hornitzeko.



3. Herritarren ekarpenak

- Argiteriaren energia-kontsumoa murriztu, kontsumo baxuko bonbillen bitartez.
- Herri- eta baso-bideak garbitu.
- Garraio publikoa hobetu, agian bus-sistema izan gabe taxia edota autobus txikiak ezarriz. Horrez gain, txip aldaketa eragiteko plangintzaren bat martxan jartzea proposatu da baita ere.
- Kirola praktikatzeko gune bat egokitu: gimnasioa, dantza, yoga eta beste hainbat jardueratarako baliagarria.

Bakarka jaso diren beste proposamen batzuk

- Nekazaritzaren eta industriaren sustapena.
- Helduei laguntza eta gazteentzat lokal edota egoteko lekua.
- Herritarrek parte-hartzeko moduak aztertzea.
- Umeentzako jostailu gehiago eta lokal handiagoa eta egokiagoa.
- Auzolana sustatu.
- Eskualde mailako ibilbideak egokitu.



3. Herritarren ekarpenak

3.5. Zestoa

24 herritar elkartu ziren Zestoako udaletxean egindako bilkuran, 14 gizon eta 10 emakume. Gutxi gorabehera, 37 eta 60 urte arteko herritarrek izan ziren bertaratutakoak.

3.5.1. Proposamenak

- Urolako trenbide zaharreko bidegorria egokitu, bi zatitan, Zestoa-Lasao eta Zestoa-Zumaia. Proposamen gehien jaso dituen proposamena izan da, hamaika lagunek proposatu baitute. Horrez gain, duela urte eta erdi inguru hainbat herritarren ekimenez 170 sinadura inguru jaso zituzten eskari hori babesteko.
- Herri-guneko hainbat irisgarritasun arazo konpondu, Idiazpi auzoan, batez ere. Hainbat herritarrek irisgarritasunarekin lotutako kezka nabarmendu dituzte, maila orokorrean (espaloien egokitzapena, kaleetako zorua...) eta zehatzago, Idiazpi eta San Joan auzoetako arazoak. Aipatu dute baita ere Ekain Berriko egokitzapen-lanak direla eta arrapala bat eraiki zutela, baina finantzazio-arazoengatik hor dagoela, falta zaion mekanikarik gabe.
- Kultur ekitalditarako gunea egokitu: zinea, emanaldiak, entseguak... Hainbat aipamen egin dituzte kultur espazio berri batekin lotuta; hala nola, liburutegi azpiko lokala egokitu, zine areto zaharra egokitu (erosi, alokatu...). Izan ere, gaur egun ez dago herrian 80 lagun baino gehiago hartu ditzakeen lokalik.
- Anbulatorio berria ireki. Oso egoera prekarioan dago egungoa (EAEko desegokienetakoa omen da). Eraikin berria erosi zuten, baina ez dago finantziatorik .hura egokitzeko eta zaharrean jarraitzen dute, nahiko baldintza txarretan.
- Igerileku publikoa eraiki eta kiroldegia zaharberritu.
- Errepide nagusia herri-gunetik atera; saihezbidea egin.
- San Joan auzoa berritu, garbitu eta konpondu.
- Lasako geltoki zaharra egokitu, erabileraren bat eman (bertako produktuak saldu, erakusketa-gunea...)
- Liburutegi azpiko lokala egokitu, hainbat jardueratarako.
- Ertxiña mendia garbitu: bideak, gurutze bideak...
- Babesik gabeko adingabeentzako beste kokaleku hobeago bat egokitu, Endoia ez omen da tokirik egokiena arazo horiek dituzten gazteentzat.



3. Herritarren ekarpenak

Bakarka jaso diren beste proposamen batzuk

- Herriko turismoa sustatzeko ekimenak.
- Futbol-zelai zaharrearantz berrikuntzak egitea (mahaiak, zuhaitzak landatu), edo parke irekia sortu.
- Estazioko lorategian haurrentzako parkea eraiki.
- Baso-baliabideak.
- Bertako basoak garatu (pinuaren ordean, bertako espeziak). Laguntzak landaketetarako eta zaintza lanetarako.
- Kiroldagiko beheko komunak konpontzea.



3. Herritarren ekarpenak

3.6. Eskualdeko bilerak

Eskualdeko bi bilera egin ziren, eta horietan edozein herritarrek parte har zezakeen. Proposamenak aztertuta, antolatu, bateratu eta sailkatu egin ziren, eta Aldundiaren eskumenekoak ez zirela argi zeudenak bazter utzi ziren. Horrela, herritarrentzat lehenesteko errazagoa izan zedin, lau bloketan antolatu ziren. Eskualdeko lehenbiziko bileran horiek aurkeztu ziren, eta herritarrei lehenesteko eskatu zitzairen. Horretarako, parte hartzaile bakoitzari koloretako bost pegatina eman zitzaizkion, bakoitza 1etik 5era bitarteko puntuazioarekin. Hala, herritar bakoitzak 5 proiektu lehenetsi zituen. Nolanahi ere, herri bakoitzetik bertaratutako jende kopuruak desorekarik ez eragiteko eta herrien arteko desberdintasunik ez sortzeko, eskualde izaerako 20 proiektu aukeratu ziren, eta herri bakoitzeko 4 (denetara, beraz, 40 proiektu). Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek proiektu horiek ekonomikoki kuantifikatu, eta teknikoki edota ekonomikoki bideragarriak ez zirenak baztertu egin zituzten.

Eskualdeko bigarren bilerara, proposamenik bozkatuenak kuantifikatu ondotik, 500.000 euroen inbertsiorako proposamen zehatza landuta eraman zen. Proiektuak aurkezteko, aurrez Talde Sustatzailean landutako irizpideen arabera egin zen. Herritarrek nahi zituzten proiektuak baloratu zituzten, baina irizpide orokor batzuk kontuan hartzeko eskatu zitzairen, gogoetarako. Irizpide gehien betetzen zituztenetatik gutxien betetzen zituztenetara ordenatuta aurkeztu ziren proposamenak.

3.6.1. Irizpideak

Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo honetarako proposaturiko irizpideak Talde Sustatzailearekin kontrastatu eta osatu egin ziren, eta eskualdeko bileran aurkeztu. Irizpide horiek proposamenak ordenatzeko erabili ziren, baita parte hartzaileen artean gogoeta eragiteko ere. Hala, irizpideen betetze mailak ondorio zuzenik ez edukita ere, proposamenak lehenesterakoan aintzat hartzeko eskatu zitzairen parte hartzaileei. Hauek izan ziren aurkeztutako irizpideak:



3. Herritarren ekarpenak

NORI ZUZENDUAK DAUDEN ARABERA

Genero-ikuspegia txertatua edukitzea.

Bazterketa sozialeko arriskuan dauden herritarrak babestea.

Minusbaliotasunak dituzten herritarren aldeko proposamenak izatea.

PROPOSAMENEN EDUKIAREN ARABERA

Bailarako ikuspegia edukitzea. Eskualde osoa onuradun izatea, eragina denongana iristea. Denon artean zerbait egiteko aukera baliatzea.

Aukeratutako proposamenek herri guztietan eragina izatea. Herrien arteko oreka bermatzea. Herrietan dauden beharrak aintzat hartzea, bereziki herri txikienetakoak.

Udalerri bat baino gehiagorako egokia izatea.

Inklusioa, aniztasuna, tolerantzia, kulturartekotasuna... bultzatzea. Justizia soziala bultzatzea. Enplegua (epe luzekoa eta kalitatezkoa) bultzatzea.

Herritar sare autonomoa eta parte hartzailea bideratzea, edota herritarren arteko sinergiak sortzea. Auzolana, batzarra eta herri-ondasunak sustatzea.

Ingurumena, garapen iraunkorra eta jasangarritasuna sustatzea. Burujabetza bultzatzea.



3. Herritarren ekarpenak

INBERTSIOAREN EDO MANTENUJAREN ARABERA

Herrietan dauden ase gabeko azpiegitura eta ekipamendu beharrei erantzutea. Herrietako errealitatea aintzat hartzea.

Egoera txarrean, arriskua eragin edo irisgarritasuna oztopatzen duten arazoak gainditzea.

Denboran iraunkorrak izatea. Egitasmo txikiak lehenestea, azpiegitura handien aldean. Etorkizunean bertako baliabideak ustiatzeko pizgarria izatea.

EMAITZEN IKUSPENAREN ARABERA

Egingo diren ekimenak herritarrek antzematea, ikusi/ukitu daitezkeen kontuak izatea.

3.6.2. Proposamenak

Aurrez adierazi bezala, proposamenak lau multzotan antolatu ziren, herritarrentzat argiago suerta zedin.

→ Kultura / Kirola / Gazteria / Euskara / Oroimen historikoa

→ Ingurumena / Mugikortasuna

→ Gizarte politika / Herritarren parte-hartzea / Berdintasuna

→ Garapen sozioekonomikoa / Turismoa

Hauek izan ziren eskualdeko bilerara eraman ziren proposamenak:



3. Herritarren ekarpenak

36.

KULTURA, KIROLA, GAZTERIA, EUSKARAREN SUSTAPENA, OROIMEN HISTORIKOA					
Zbkia	Izaera	Proposamena	Arloa	Herria	Irizpide kopurua
1	Eskualdekoa	Haur eta gazteentzat tailerrak eta ekitaldiak berdintasuna (sexu, arraza, egoera ekonomikoa...) sustatzeko. Jokabide ez konpetitiboak erakutsi haurrei eta gazteei, parekidetasuna eta elkar laguntza bultzatzeko	Gazteria	Zestoa	6
2	Eskualdekoa	Gazteen udalekuearako plaza-kopurua handitu. Hizkuntza-egonaldietarako baliabideak eskaini.	Gazteria	Azkoitia	4
3	Eskualdekoa	Adin guztietako jendearentzako kultura-ekitaldiak antolatu (kontzertuak, antzerkia, erakusketak...), eta bi hizkuntzetan egin daitezela, euskara ez dakigunok ere eskaintza izan dezagun.	Kultura	Zestoa	4
4	Eskualdekoa	Kirola egiteko tresnak parke eta aire libreko eremuetan.	Kirola	Azkoitia	4
5	Eskualdekoa	Emakumeen kirola sustatzeko programak.	Kirola	Azkoitia	4
6	Eskualdekoa	Herri bakoitzeko oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak martxan jartzea	Giza eskubideak	Eskualdea	4
7	Eskualdekoa	Herri txikietan kultura jarduerak sustatu. Herrietan barnako kultura-zirkuituak bultzatu, ekitaldi guztiak ez daitezen eskualde-buruetara mugatu. Sortzaileak eta artista berriak bultzatu, eta hauen lana herri txikietan barna mugitu, eta eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatu.	Kultura	Beizama	3
8	Eskualdekoa	Haur eta gazteentzat programak landu, herrietako etorkizuna diren neurrian, bertan bizitzeko erraztasunak eman.	Gazteria	Beizama	3



3. Herritarren ekarpenak

37.

9	Eskualdekoa	Museo arkeologikoa egin. Munoaundi burdin aroko herrixka herritarrei zabaldu.	Kultura	Azpeitia	2
10	Udalerrikoa	Ezinduentzat igogailua jarri igerilekuan	Kirola	Azpeitia	2
11	Udalerrikoa	Liburutegian haur txikien gunea bereizi, gainerako gaztetxoek gunean isiltasun handiagoa egon dadin.	Kultura	Azkoitia	1
12	Udalerrikoa	Kultur ekitaldietarako gunea egokitu: zinea, emanaldiak, entseguak... Hainbat aipamen egin dituzte kultur espazio berri batekin lotuta; hala nola, liburutegi azpiko lokala egokitu, zine areto zaharra egokitu (erosi, alokatu...). Izan ere, gaur egun ez dago herrian 80 lagun baino gehiago hartu ditzakeen lokalik.	Kultura	Zestoa	1
13	Udalerrikoa	Liburutegiko ordutegia zabaldu, goiz eta arratsalde irekia egonez, baita langileak oporrak hartzen dituen ere	Kultura	Zestoa	1
14	Udalerrikoa	Herrian dagoen liburutegia martxan jarri. Dinamizatzailea kontratatu.	Kultura	Errezil	1
15	Udalerrikoa	Zestoako Udala Aizarnan egiten ari den Kultur Etxea bukatu	Kultura	Zestoa	1
16	Udalerrikoa	Errezilgo haurrentzat gunea egokitu	Gazteria	Errezil	1
17	Udalerrikoa	Azkoitiko tenis-pista txukundu	Kirola	Azkoitia	1
18	Udalerrikoa	Atletismoa egiteko pista eraiki.	Kirola	Azpeitia	1
19	Udalerrikoa	Kirola praktikatzeko gune bat egokitu: gimnasioa, dantza, yoga eta beste hainbat jardueratarako baliagarria.	Kirola	Errezil	1
20	Udalerrikoa	Igerileku estalia eraiki eta kiroldegia zaharberritu	Kirola	Zestoa	1
21	Udalerrikoa	Haurrentzako parke estali bat egin.	Gazteria	Azkoitia	0



3. Herritarren ekarpenak

38.

22	Udalerrikoa	12-16 urte arteko gazteentzako lokal estali bat.	Gazteria	Azkoitia	0
23	Udalerrikoa	Betharram ikastetxeko patioan mahaiak eta esertzeko tokiak jarri	Gazteria	Azpeitia	0
24	Udalerrikoa	Kirol-azpiegiturak hobetu eta zabaldu. Kiroldegiko gimnasioa konpondu, dutxak berritu, Iraetako futbol zelaia herritar guztiei zabaldu.	Kirola	Zestoa	0

GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN POLITIKAK, HERRITARREN PARTAIDETZA, ANIZTASUNA

Zbkia	Izaera	Proposamena	Arloa	Herria	Irizpide kopurua
1	Eskualdekoa	Gazteak boluntario lanetan jarri, ezinduek edo edadetuak lagunduz	Gizarte politika	Azpeitia	7
2	Eskualdekoa	Etorkinentzat harrera-ikastaroak eskaini.	Gizarte politika	Azpeitia	6
3	Eskualdekoa	Gazte ezinduentzat aisialdiko programak	Gizarte politika	Errezil	6
4	Eskualdekoa	Gazteen artean berdintasuna sustatzeko programa	Berdintasuna	Azkoitia	6
5	Eskualdekoa	Berdintasun arloko aurrekontua handitu	Berdintasuna	Azpeitia	6
6	Eskualdekoa	Auzolana sustatu	Herritarren parte-hartzea	Zestoa	5
7	Eskualdekoa	Urola erdirako immigranteak gizarteratzeko plana garatu, eta teknikari bat jarri zeregin horietarako. Bereziki, hauen osasun-, lan-, hezkuntza- eta kultura-jardueretarako sarbidea erraztu.	Gizarte politika	Azkoitia	5
8	Eskualdekoa	Ezinduentzat lanerako garraio berezia (Gureak)	Gizarte politika	Errezil	5



3. Herritarren ekarpenak

39.

9	Eskualdekoa	Dependentzia duten pertsoneri arreta handiagoa	Gizarte politika	Zestoa	5
10	Eskualdekoa	Herritarren partaidetza bultzatzeko tresnak eta dinamikak bultzatu, bereziki teknologia berrien bidetik. Sistema bat osatu partaidetza hori errazteko (Suitzan bezala, adibidez).	Herritarren parte-hartzea	Errezil	4
11	Eskualdekoa	Bailarako pobreziaren azterketa soziologikoa egin.	Gizarte politika	Azkoitia	4
12	Eskualdekoa	Adineko pertsoneri arreta, bereziki baserrietan bizi direnei.	Gizarte politika	Beizama	4
13	Udalerrikoa	Babesik gabeko adingabeentzako beste kokaleku hobea bat egokitu, Endoia ez omen da tokirik egokiena arazo horiek dituzten gazteentzat.	Gizarte politika	Zestoa	2
14	Udalerrikoa	Indarkeria matxistaren biktimentzako larrialdiko etxebizitza egokitu eta martxan jarri	Berdintasuna	Azkoitia	2
15	Udalerrikoa	Eguneko zentroa herri erdigunera jaitsi. Eraikin bat horretarako egokitu.	Gizarte politika	Azkoitia	1

MUGIKORTASUNA, INGURUMENA

Zbkia	Izaera	Proposamena	Arloa	Herria	Irizpide kopurua
1	Eskualdekoa	Basoen aprobetxamendu integralerako antolaketa-plan bat egin Urola bailara osorako, baserri-bide, mendi-bide, bidegorri, erreka eta ibaien garbiketa- eta mantentze-lanak jasokok dituena. Bertako espeziak landatzea sustatu, eta laguntzak eman landaketetarako eta zaintza lanetarako. Horretarako lanpostu berriak sor daitezke, edota gizarte-laguntza jasotzen dutenekin lan egin.	Ingurumena	Azkoitia	5



3. Herritarren ekarpenak

2	Eskualdekoa	Mugikortasun arazoak dituztenentzat azpiegituretarako sarbideak hobetu	Gizarte politika	Zestoa	5
3	Eskualdekoa	Burujabetza energetikoa lortzeko plangintza bat garatu, tokiko energiari lehentasuna emanaz: energia hidraulikoa, biometanizazioa (hondakinetatik), biomasa, fotoboltaikoa, geotermikoa, eolikoa...	Ingurumena	Azkoitia	4
4	Eskualdekoa	Eskualdeko mendietan bidezidorrak txukundu, eta mendi-ibilbide erakargarriak egin.	Ingurumena	Azpeitia	4
5	Eskualdekoa	Argiteriaren energia-kontsumoa murriztu, kontsumo baxuko bonbillen bitartez. Argi-kutsadura murriztu.	Ingurumena	Eskualdea	4
6	Eskualdekoa	Motorrek, quadek eta bestelako ibilgailu motordunek sortzen duten zarata handia kontrolatu	Ingurumena	Zestoa	4
7	Eskualdekoa	Baseri-bideetako uraren kanalizazioak porlanez hartu.	Mugikortasuna	Azkoitia	3
8	Eskualdekoa	Azkoitiko garbigunea handitu, berritu eta ordutegia zabaldu.	Ingurumena	Azkoitia	3
9	Eskualdekoa	Urolako trenbide zaharreko bidegorria egokitu, bi zatitan, Zestoa-Lasao eta Zestoa-Zumaia. Atxikimendu gehien jaso dituen proposamena izan da, hamaika lagunek proposatu baitute. Horrez gain, duela urte eta erdi inguru hainbat herritarren ekimenez 170 sinadura inguru jaso zituzten eskari hori babesteko. Bestelako bide-gorri zati batzuk egokitzea eta txukuntzea ere jaso da: Azkoiti barrukoak, Urrestillara eta Matxinbentara. Egina dagoen zatia mantendu eta garbitu.	Mugikortasuna	Eskualdea	3
10	Eskualdekoa	Azkoitia-Zumarraga, Azpeitia-Tolosa eta Goierriako errepideak moldatu, eta kamioiak aurreratzeko guneak sortu, edo errepidea bikoiztu.	Mugikortasuna	Azkoitia	1
11	Eskualdekoa	Azpeititik A-8ra bitarteko errepide-sarea hobetu.	Mugikortasuna	Azpeitia	1
12	Eskualdekoa	Baseri-auzoetako bide-bazterrak maizago garbitu.	Mugikortasuna	Azkoitia	0
13	Eskualdekoa	Errepide nagusia herri-gunetik atera; sailhesbidea egin.	Mugikortasuna	Zestoa	0
14	Udalerrikoa	Baseri-bideak konpondu eta katalogatu. Errezilen, adibidez, auzolanean egitea proposatzen dute.	Mugikortasuna	Errezil	4



3. Herritarren ekarpenak

41.

15	Udalerrikoa	Bidegorria patinetan ibiltzeko egokitu.	Mugikortasuna	Zestoa	2
16	Udalerrikoa	Mekoletako biribilgunean, oinezkoen pasabidea, ikastetxeetara oinez joan ahal izateko.	Mugikortasuna	Azkoitia	2
17	Udalerrikoa	Etxeetako ur zikinak baliabide naturalen bidez araztu. Saneamendu-sarea egin. Une honetan ez dago saneamendurik.	Ingurumena	Errezil	2
18	Udalerrikoa	Ur-hornidura hobetzea: Oso egoera irregularrean dago; zenbait tokitan arazoak izaten dituzte lehorte-garaietan eta herri-kaskoko zenbait etxetan sarritan izaten dituzte arazoak. Gainera, diru-laguntza bati esker instalazio batzuk berritu zituzten, baina amaitu gabe daude eta ez dute egoera horretan ezertarako balio. Hori dela eta, Ur-sarea konpontzea eta amaitzea proposatzen dute. Bereziki, baserrietara ura eramatea.	Ingurumena	Errezil	1
19	Udalerrikoa	Izarraitz auzoan, Nordekua eta Txintxillo baserrien arteko bidea moldatzea.	Mugikortasuna	Azkoitia	1
20	Udalerrikoa	Herri-eskolako irisgarritasuna hobetzea: Duela 19 urte eraiki zuten arren, irisgarritasun gabezia handiak ditu. Igogailuaren aukera baztertuta dago, mantentze-gastuak altuegiak liratekeelako, baina arrapalen proiektua eginda dago.	Mugikortasuna	Errezil	1
21	Udalerrikoa	Herri-guneko hainbat irisgarritasun arazo konpondu, Idiazpi auzoan, batez ere. Hainbat herritarrek irisgarritasunarekin lotutako kezkak nabarmendu dituzte, maila orokorrean (espaloien egokitzapena, kaleetako zorua...) eta zehatzago, Idiazpi eta San Joan auzoetako arazoak. Aipatu dute baita ere <i>Ekain Berriko</i> egokitzapen-lanak direla eta arrapala bat eraiki zutela, baina finantzazio-arazoengatik hor dagoela, falta zaion mekanikarik gabe.	Mugikortasuna	Zestoa	1
22	Udalerrikoa	Herri barruko errepideak konpondu.	Mugikortasuna	Azkoitia	0
23	Udalerrikoa	Autoak errepidean polikiago joateko sistemak jartzea herri-kaskoko errepide-eremuan. Semaforoa badago, baina ez du eraginik ez baita erabiltzen.	Mugikortasuna	Errezil	0



3. Herritarren ekarpenak

42.

JARDUERA EKONOMIKOEN SUSTAPENA, ESKULDEKO OREKA LORTZEKO EKINTZAK					
Zbkia	Izaera	Proposamena	Arloa	Herria	Irizpide kopurua
1	Eskualdekoa	Hirugarren adineko zerbitzuak eskaintzen dituzten kooperatiba berrien aukerak baloratu: etxez etxeko zerbitzuak: zaintza, kateringa, trebakuntza...	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	5
2	Eskualdekoa	Eskualdeko historia berreskuratzeko plangintza bat garatu (aurrehistoria, Europako jatorria), kontuan hartuz eskualdean dauden baliabideak: Ekain, Praileaitz, Urteaga, Munohaundi, euskal mitologia, bertako euskara... Turimo jasangarri plangintza batekin lotu. Tokiko historia ikertzeko eta zabaltzeko programa landu.	Kultura	Azkoitia	5
3	Eskualdekoa	Birziklatze-enpresak sustatu.	Ingurumena	Azpeitia	4
4	Eskualdekoa	Eskualdeko garapen ekonomikorako plan oso bat egin, Azpeitiko egoera oso txarra dela aintzat hartuta. Horrek eskatzen du, besteren artean, formazio eskaintza zabaltzea (egun altzairuari erabat lotua dagoena, dibertsifikatzea), eta ikerketa eta garapenean inbertitzea (zentro bat eraiki horretarako). Inkubadora industrialak sustatzea, sektore berrietara egokitzeko.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	4
5	Eskualdekoa	Elikadura subirautza bultzatzeko plan bat egin, baserri-guneak eta landa eremuak babesteko eta berreskuratzeko balioko duena	Jarduera ekO. sustapena	Azkoitia	4
6	Eskualdekoa	Nekazaritza ekologikoaren ustiapena eta produktu horien kontsumoa bultzatu, landa eremua eta baserriak berreskuratuz	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	4
7	Eskualdekoa	Ekintzailetasun adituekin aliantzak egin, proiektua bideratzeko, honek duen kostea finantzatuz.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	4
8	Eskualdekoa	Eko-bailara izateak sor ditzakeen aktibitate ekonomiko berrien aukerak aztertu eta bideratu. Jadanik existitzen diren jardueren indartzea.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	4



3. Herritarren ekarpenak

43.

9	Eskualdekoa	Turismo berdea bultzatu: urtegia eta eskualdeko pistak zainduz. Matxinbentan dagoen bidegorria amaitu (250 m.). Aisialdirako gune bihurtu: jateko guneak eraiki, arrantzarako ballabideak jarri, itsasontzi motor gabeak baimendu (kanoak...). Ondarea birgaitu (errotak...), eta gainontzeko elementuekin (basoa, nagusiki), plangintza diseinatu, turismoa erakartzeko. Natura, kultura eta etnografiarekin loturiko bide-sareak sortu eta erakarguneak sortu (merenderoak, erreketan igerileku naturalak...)	Jarduera ekO. sustapena	Eskualdea	4
10	Eskualdekoa	Turismo arloan kooperatiba berriak sortzen dauden aukerak herritar eta eragileekin aztertu; proposamenak jaso eta balidatu. Hirugarren adineko turismoa; ekoturismoa; gastronomia...	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	4
11	Eskualdekoa	Enplegua sortzeko kooperatibak bultzatu.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	4
12	Eskualdekoa	Nekazariak egiten duten lana aitortu, gizarte osoarentzat duen onura errekonozituz. Herrietan bizi ahal izateko bide gisa, nekazaritza eta abeltzaintza sustatu. Nekazarien artisautza-produkzioa erraztu eta babestu (produktore txikiek inbertsio handiegirik egin behar ez dezaten).	Jarduera ekO. sustapena	Beizama	4
13	Eskualdekoa	Denda txikiak laguntzeko programa, eta enpresa txiki eta ertainen sorrera lagundu. Gure produktuak on-line jarri, eta bertan erosteko kanpainak bultzatu.	Jarduera ekO. sustapena	Azkoitia	3
14	Eskualdekoa	Berrikuntza teknologikoa sustatu.	Jarduera ekO. sustapena	Azkoitia	3
15	Eskualdekoa	Eskualdeko garapen ekonomikorako plan oso bat egin, Azpeitiko egoera oso txarra dela aintzat hartuta. Horrek eskatzen du, besteren artean, formazio eskaintza zabaltzea (egun altzairuari erabat lotua dagoena, dibertsifikatzea), eta ikerketa eta garapenean inbertitzea (zentro bat eraiki horretarako). Inkubadora industrialak sustatzea, sektore berrietara egokitzeko.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	3
16	Eskualdekoa	Jarduera berriak bultzatzeko diru-laguntza programak.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	3



3. Herritarren ekarpenak

44.

17	Eskualdekoa	Bailarako dibersifikazioa bultzatu, sektore berritzaileko enpresak sortu araziz. Horretarako, bailarako ehun ekonomikoaren informazio izatea beharrezko denez, (hau da Urola Erdiko INDUSTRIA MAPA bat), honako informazioa izateko erabili daiteke finantziario hau: bailarako enpresen kompetentzia esentzialak identifikatzeko; ahalmen teknologikoa eta ez teknologikoa hausnartzeko; bailarako diagnostiko teknologiko bat egiteko; hazkunderan diren produktu-merkatu-teknologiak matrize bat egin eta bertan Urola Erdiko ahalmenetik abiatuz, lehentasun arlo batzuk iradokitze.	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	3
18	Eskualdekoa	Ernioren magaleko abeltzaintza jarduera bizkortzeko interbentzio publikoa, lurak eta azpiegiturak abeltzain berriei eskaintzeko.	Jarduera ekO. sustapena	Errezil	3
19	Eskualdekoa	Berdura plaza eraberritu, eta nekazaritzako proiektu bat landu bertan, azoka iraunkor batekin, lehen sektorea bultzatzeko, zuzeneko salmenta egiteko (herritarrei, ikastetxeetan, jatetxeetan...). Informazio eta suspertze-bulego bat	Jarduera ekO. sustapena	Azpeitia	2
20	Eskualdekoa	Azpeitian eta Azkoitian turismo zerbitzu bana jartzea. Bulego bat, edo ordutegi mugatuko zerbitzu bat, jendaurrekoa, herri bakoitzaren potentzialtasuna sustatzeko.	Jarduera ekO. sustapena	Eskualdea	2
21	Udalerrikoa	Errezilgo Trintxera eraikina zaharberritu eta egokitu. Erabilera publikoa eman	Jarduera ekO. sustapena	Errezil	0
22	Udalerrikoa	Ekain-berrira datozenak herrian sartzeko, eta horretarako erakargarriren bat jarri. Souvenirren denda bat jarri herrian.	Jarduera ekO. sustapena	Zestoa	0

Proposamen horietatik, honako 40 proposamen hauek aukeratu ziren, Aldundiko teknikariek horien bideragarritasun ekonomikoa eta tekniko baloratzeko, eta proposamenen inbertsioa kuantifikatzeko.



3. Herritarren ekarpenak

45.

BOZ-KAK	PROPOSAMENA	OHARRAK	AURREKONTUA / BIDERAGARRITASUNA
98	Urolako trenbide zaharreko bidegorria egokitu, bi zatitan, Zestoa-Lasao eta Zestoa-Zumaia.	Lasao-Zestoa zatian trenbidearen ibilbidea behin-behinekoz baino ezin izango litzateke erabili. Udalek bidalitako aurreproiektuak osatu beharra. Zestoa-Zumaia tarte bat egiten ari dira, eta bestea 2018-2021 eperako aurreikusten da	625.000 €
52	Elikadura subirautea bultzatzeko plan bat egin, baserri-guneak eta landa eremuak babesteko eta berreskuratzeko balioko duena	13.000.000 €-ko partida badago. Hortik bideratuko da.	Baztertua
39	Basoen aprobetxamendu integralerako antolaketa-plan bat egin Urola bailara osorako, baserri-bide, mendi-bide, bidegorri, erreka eta ibaien garbiketa- eta mantentze-lanak jasokok dituen. Bertako espeziak landatzea sustatu, eta laguntzak eman landaketetarako eta zaintza lanetarako. Horretarako lanpostu berriak sor daitezke, edota gizarte-laguntza jasotzen dutenekin lan egin.	Horrelako antolaketa-plan bat udalerriekin, nekazaritza-sindikatuekin, oihan-jabe pribatuekin, eta eragindako bestelako partikularrekin, zein eragile sozial eta instituzionalekin partekatu beharrekoa da. Foru Arauak zehazten du informazio publikoan jarri beharko litzatekeela.	100.000 €
34	Eskualdeko mendietan bidezidorrak txukundu, eta mendi-ibilbide erakargarriak egin.	Lan-eremua zehaztu beharko litzateke, eskualdean dauden zein bidetan egingo litzatekeen inbertsioa, eta egin beharreko inbertsioen azterketa egin. Aldundiak oinarritzko bideetan eta GR bideetan esku hartzen du, eta gainerakoak udalen eskumenekoak dira.	80.000 €
33	Enplegua sortzeko kooperatibak bultzatu.	Ekimen pribatuari dagokio.	Baztertua



3. Herritarren ekarpenak

46.

26	Burujabetza energetikoa lortzeko plangintza bat garatu, tokiko energiari lehentasuna emanez: energia hidraulikoa, biometanizazioa (hondakinetatik), biomasa, fotoboltaikoa, geotermikoa, eolikoa...	Plana idaztea bakarrik	40.000 €
22	Haur eta gazteentzat tailerrak eta ekitaldiak berdintasuna (sexu, arraza, egoera ekonomikoa...) sustatzeko. Jokabide ez konpetitiboak erakutsi haurrei eta gazteei, parekidetasuna eta elkar laguntza bultzatzeko	Hainbat proposamen bateratu egin dira. Haur eta gazteen artean parte-hartzea sustatzeko. Bateratutako proposamenak * ikurraz markatu dira	45.000 €
19	Bailarako dibertsifikazioa bultzatu, sektore berritzaileko enpresak sortu araziz. Horretarako, bailarako ehun ekonomikoaren informazio izatea beharrezko denez, (hau da Urola Erdiko INDUSTRIA MAPA bat), honako informazioa izateko erabili daiteke finantziario hau: bailarako enpresen kompetentzia esentzialak identifikatzeko; ahalmen teknologikoa eta ez teknologikoa hausnartzeko; bailarako diagnostiko teknologiko bat egiteko; hazkundean diren produktu-merkatu-teknologiak matrize bat egin eta bertan Urola Erdiko ahalmenetik abiatuz, lehentasun arlo batzuk iradokitzeak.	Garapen Agentziari dagokio. Diru-laguntzak badaude horretarako. 7.368.162,48 € daude horrelako proiektuetarako	Baztertua
16	Mugikortasun arazoak dituztenentzat azpiegituretarako sarbideak hobetu	Ez da bideragarria. Zestoa eta Errezilgo proposamenak aztertu dira.	Baztertua
14	Herri bakoitzeko oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak martxan jartzea	Plan estrategiko bat lantzeko, non azalduko dira zer ekimenak jarri behar dira martxan, eta horrela 2015ean udalek aurkeztuko dituzte Plan honen arabera proiektu zehatzak Aldundiak daukan deialdira.	22.000 €
14	Eskualdeko historia berreskuratzeko plangintza bat garatu	Plangintza egitea eta garatzea	30.000 €



3. Herritarren ekarpenak

47.

	(aurre-historia, Europako jatorria), kontuan hartuz eskualdean dauden baliabideak: Ekain, Praileaitz, Urteaga, Munohaundi, euskal mitologia, bertako euskara... Turimo-jasangarri plangintza batekin lotuta.		
14	Birziklatze-enpresak sustatu.	Eraikuntza eta eraiste hondakinak, hondakin industrialak eta abar. Horiek Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.	Baztertua
13	Herri txikietan kultura jarduerak sustatu. Herrietan barnako kultura-zirkuituak bultzatu, ekitaldi guztiak ez daitezen eskualde-buruetara mugatu. Sortzaileak eta artista berriak bultzatu, eta hauen lana herri txikietan barna mugitu, eta eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatu.	Bateratutako proposamena	*
12	Hirugarren adineko zerbitzuak eskaintzen dituzten kooperatiba berrien aukerak baloratu: etxez etxeko zerbitzuak: zaintza, katerina, trebakuntza...	Ekimen pribatuari dagokio. Diru-laguntza lerroak daude	Baztertua
12	Auzolana sustatu	Bateratutako proposamena	*
11	Bailarako pobreziaren azterketa soziologikoa egin.	Departamentuak pobreziaren inguruko ikerketa egingo du 2014. urtean Lurralde osorako. Eskatu dezakegu Urola Erdiko bailaran zehazki lagin handiago bat egitea eta bertako analisi sakona egitea ere	20.000
10	Gazteak boluntario lanetan jarri, ezinduak edo edadetuak lagunduz	Udalen eskumena da nagusiki gazteekin eta gazteen erakundeekin lan egitea. Aldundiak lagun dezake	Baztertua
10	Eko-bailara izateak sor ditzakeen aktibitate ekonomiko berrien aukerak aztertu eta bideratu. Jadanik existitzen diren jardueren indartzea.	Garapen Agentziari dagokio. Diru-laguntzak badaude horretarako. 7.368.162,48 € daude horrelako proiektuetarako	Baztertua
8	Herritarren partaidetza bultzatzeko tresnak eta dinamikak	Bateratutako proposamena	*



3. Herritarren ekarpenak

	bultzatu, bereziki teknologia berrien bidetik. Sistema bat osatu partaidetza hori errazteko (Suitzan bezala, adibidez).		
6	Azkoitiko garbigunea handitu, berritu eta ordutegia zabaldu.	Garbiguneei buruzko eskumena Udal eta Mankomunitateena da	Baztertua
6	Denda txikiak laguntzeko programa, eta enpresa txiki eta ertainen sorrera lagundu. Gure produktuak on-line jarri, eta bertan erosteko kanpainak bultzatu.	Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza da. GFaren diru-laguntza programa bat ere badago.	Baztertua
5	Haur eta gazteentzat programak landu, herrietako etorkizuna diren neurrian, bertan bizitzeko erraztasunak eman.	Bateratutako proposamena	*
4	Gazteen artean berdintasuna sustatzeko programa	Bateratutako proposamena	*
3	Kirola egiteko tresnak parke eta aire libreko eremuetan.	2014 urtean 2014-2016 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planeko diru laguntzak arautzeko oinarriak argitaratuko dira.	Baztertua
3	Etorkinentzat harrera-ikastaroak eskaini.	Udalen eskumena	Baztertua
3	Dependentzia duten pertsonen arreta handiagoa	Etxez etxeko zerbitzua udalaren ardura da. Zaharren egoitza eta eguneko zentroa GFAk finantzatzen baititu.	Baztertua
3	Berrikuntza teknologikoa sustatu.	Proiektua zehazteko beharra. Jaurlaritzak eta GFAk diru-laguntzak bideratzen dituzte horrelako proiektuetarako.	Baztertua
2	Eskualdeko garapen ekonomikorako plan oso bat egin, Azpeitiko egoera oso txarra dela aintzat hartuta. Horrek eskatzen du, besteren artean, formazio eskaintza zabaltzea (egun altzairuari erabat lotua dagoena, dibertsifikatzea), eta ikerketa eta garapenean inbertitzea (zentro bat eraiki horretarako). Inkubadora industrialak sustatzea, sektore berrietara egokitzeko.	Garapen Agentziari dagokio. Diru-laguntzak badaude horretarako. 7.368.162,48 € daude horrelako proiektuetarako	Baztertua
1	Emakumeen kirola sustatzeko programak.	Laguntza lerro berezi bat finkatua dago berdintasuneko	Baztertua



3. Herritarren ekarpenak

49.

		ekintzak garatzen dituzten Gipuzkoako kirol entitateentzat.	
1	Azpeititik A-8ra bitarteko errepide-sarea hobetu.	Zestoako saihesbidea	20.000.000

BOZK AK	PROPOSAMENA	ARLOA	IRIZP. KOP.
	BEIZAMA		
13	Herri txikietan kultura jarduerak sustatu. Herrietan barnako kultura-zirkuituak bultzatu, ekitaldi guztiak ez daitezen eskualde-buruetara mugatu. Sortzaileak eta artista berriak bultzatu, eta hauen lana herri txikietan barna mugitu, eta eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatu.	Bateratutako proposamena	*
	ERREZIL		
30	Baseri-bideak konpondu eta katalogatu. Errezilen, adibidez, auzolanean egitea proposatzen dute.	Egungo egoera eta, beraz, egin beharreko konponketak jakin gabe zaila da zenbat kostatu luke jakitea: jar dezagun 6 €/m ² batez besteko. Auzolanean eginez gero, kostuak erdira jaitsiko ziren. Proposamen hau bost herrietara hedatzea proposatzen du Talde Sustatzaileak	150.000 €
24	Herri-eskolako irisgarritasuna hobetzea: Duela 19 urte eraiki zuten arren, irisgarritasun gabezia handiak ditu. Igogailuaren aukera baztertuta dago, mantentze-gastuak altuegiak liratekeelako, baina arrapalen proiektua eginda dago.	Izatez Udalarari dagokio, baina Foru Aldundiak laguntza eman dezake horretarako. Errezilgo udalari dokumentazioa eskatu diogu eta eginda duen proiektuaren kostuak eguneratu dira.	73.000 €



3. Herritarren ekarpenak

50.

18	Ur-hornidura hobetzea: Oso egoera irregularrean dago; zenbait tokitan arazoak izaten dituzte lehorte-garaietan eta herri-kaskoko zenbait etxetan sarritan izaten dituzte arazoak. Gainera, diru-laguntza bati esker instalazio batzuk berritu zituzten, baina amaitu gabe daude eta ez dute egoera horretan ezertarako balio. Hori dela eta, Ur-sarea konpontzea eta amaitzea proposatzen dute. Bereziki, baserrietara ura eramatea.	Ez da bideragarria aurrekontu honekin	Baztertua
ZESTOA			
23	Kultur ekitaldietarako gunea egokitu: zinea, emanaldiak, entseguak... Esaterako, liburutegi azpiko lokala egokitu, zine areto zaharra egokitu (erosi, alokatu...). Izan ere, gaur egun ez dago herrian 80 lagun baino gehiago hartu ditzakeen lokalik.	Ekonomikoki ez da bideragarria, 500.000 € baino gehiago beharko lirateke	Baztertua
13	Herri-guneko hainbat irisgarritasun arazo konpondu, Idiazpi auzoan, batez ere. Hainbat herritarrek irisgarritasunarekin lotutako kezkak nabarmendu dituzte, maila orokorrean (espaloien egokitzapena, kaleetako zorua...) eta zehatzago, Idiazpi eta San Joan auzoetako arazoak. Aipatu dute baita ere Ekain Berriko egokitzapen-lanak direla eta arrapala bat eraiki zutela, baina finantzazio-arazoengatik hor dagoela, falta zaion mekanikarik gabe.	Herri-guneko irisgarritasun arazoak konpontzea Udalari dagokio. Hala ere, Foru Aldundiak diruz lagundu dezake. 500.000 € baino gehiagoko inbertsioa da	Baztertua
5	Liburutegiko ordutegia zabaldu, goiz eta arratsaldez, baita langileak oporrak hartzen dituenean ere	Udalaren kompetentzia da	Baztertua



3. Herritarren ekarpenak

51.

	AZKOITIA		
11	Eguneko zentroa herri erdigunera jaitsi. Eraikin bat horretarako egokitu.	<p>Udalak lokala (egokia) laga beharko lioke aldundiari. (200-250m2 inguruko eta irisgarritasuna bermatu beharko litzateke. Obra Proiektu bat egin beharko litzateke (arkitektoa kontratatu) eta lizitatu ondoren obrak egin eta ondoren hornitu.</p> <p>Gero kudeaketa ere lehiaketara atera beharko litzateke. Gaur egun indarrean dagoen kontratua San Joseko egoitza eta eguneko zentroaren kudeaketarena, aldatu beharko litzateke.</p> <p>Epe aldetik zaila da 2014 amaitzerako prozesu guztia amaitutzat ematea</p>	350.000
5	Haurrentzako parke estali bat egin.	<p>Estalpea egiteko kontuan hartu behar da metro karratu bakoitza 400 euro balio duela.</p> <p>Gaur egun egina dagoen 280 metro karratuko parkean egingo balitz (Julio Urkijo trenbidearen zumardia) 120.000 euro beharko lirateke dena estaltzeko. 100 m2ren gaineko proposamena egiten da.</p>	40.000 €
3	Indarkeria matxistaren biktimentzako larrialdiko etxebizitza egokitu eta martxan jarri	Teknikoki ez da bideragarria. Zerbitzua herrialde osora zabalitzen da.	
3	Herri barruko errepideak konpondu.	Udalari dagokio. Ez dago laguntzarik	



3. Herritarren ekarpenak

3.6.3. Erabakia

Proposamenak kuantifikatu ondoren, Talde Sustatzaileak proiektuak lehenesteko irizpide batzuk proposatu zituen:

- Eskualde izaerako proiektuak lehenestea
- Herrietako proiektuen artean, landa-eremuaren garapenarekin lotura dutenak lehenestea

Aldundiko teknikariek egindako kuantifikazioa oinarri hartuta, Talde Sustatzailearen irizpideak aintzat hartuta, honako proposamen hau eraman zen eskualdeko bigarren bilerara, eztabaidarako:

PROPOSAMENA	
Basoen aprobetxamendu integrala	100.000 €
Mendietako bidezidorrak txukundu	80.000 €
Burujabetza energetikorako plangintza	40.000 €
Haur eta gazteen parte-hartze programa	45.000 €
Oroimen historikoa	22.000 €
Eskualdeko historia berreskuratzeko plangintza	30.000 €
Pobreziaren azterketa soziologikoa	20.000 €
Baserri-bideak konpondu	150.000 €
DENETARA	487.000 €



3. Herritarren ekarpenak

Parte-hartzaileen artean, eztabaida piztu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek egindako proposamenen gainean. Bi izan ziren eztabaidagai nagusiak:

→ Urolako trenbide zaharreko bidegorria egokitzeko GFA-ko teknikariek esleitutako diru-kopuruaren inguruan sortutako iritziak.

→ Hainbat egitasmo plangintza edota txostenean gelditzeko arriskua, gauzatzeraz helduko ez den zerbaitean gelditzeko arriskua.

Hori dela eta, batetik, Basoen aprobetxamendu integralerako antolaketa-plana bertan behera uztea erabaki zen. Bestetik, Bailarako pobrezia azterketa soziologikoa ez egitea; izan ere, GFAk berak asmoa duelako Gipuzkoa osoko ikerketa egitea, eta txosten horretako emaitzak nahikotzat dituztela.

Argumentu horietan oinarrituta, hau proposatu dute:

→ Basoen aprobetxamendu integralerako antolaketa-plana bertan behera uztea.

→ Mendietako bidezidorak txukuntzeko lanetarako 30.000 € gehiago esleitzea

→ Burujabetza energetikorako plangintzarako 25.000 € gehiago esleitzea, plangintzarekin batera, egitasmo zehatzen bat bideratu ahal izateko.

→ Bailarako pobrezia azterketa soziologikoa ez egitea, nahikotzat dutelako GFAk Gipuzkoa osorako egingo duen ikerketa.

→ Baserri-bideak konpontzeko esleitutako dirua beste modu batean banatzea; hau da, diru-kantitatea mantendu baina Azpeitia, Azkoitia, Beizama eta Errezileko lanak gauzatzeko: 37.500 € aipatutako herri bakoitzeko lanetarako.

→ Urolako trenbide zaharreko bidea egokitzeko 78.000 €-ko diru-partida irekitzea, gorago aipatutako irizpideetan oinarrituta.

Horren guztiaren ondorioz, hau da herritarrek onartu zuten proposamena:



3. Herritarren ekarpenak

AUKERATUTAKO PROIEKTUAK	
Mendietako bidezidorrak txukundu	110.000 €
Burujabetza energetikorako plangintza	65.000 €
Haur eta gazteen parte-hartze programa	45.000 €
Oroimen historikoa	22.000 €
Eskualdeko historia berreskuratzeko plangintza	30.000 €
Baserri-bideak konpondu	150.000 €
Lasao-Zestoa trenbidearen egokitzapen lanak	78.000 €
DENETARA	500.000 €



4. Balorazioa

Balorazioa hainbat eremutan egin da: herritarrekin egindako saioetan, Talde Sustatzailearekin, eskualdeko udalekin; Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek, eta azkenik, Talde Eragileak berak egindako balorazioa. Guztiak jaso ditugu txosten honetan.

4.1. Herritarren balorazioa

Herrietako zein eskualdeko bileretako bakoitzean herritarrekin egindako balorazioan, honako hauek azpimarratu ziren:

→ Denborak asko markatu du guztia eta proposamen asko, denbora-faktoreari lotuta egin dira. Prozesu hau uda aurretik egin beharko litzateke, kontrasterako aukera izateko eta herriko eragile gehiagoren inplikazioa eskuratzeko.

Proposamenak egin ondoren, tarte bat beharko litzateke haiek lantzeko, osatzeko, hobetzeko edota antzekoak bateratzeko. Honelako prozesu batean, kontrasteak garrantzia handia izan beharko luke; esate baterako, Udalarekin eta proposamenarekin lotura izan lezaketen eragileekin informazioa trukatzeko.

→ Herritarrekin batera, hainbat erakunde publikoetako ordezkarien presentzia bermatu beharko litzateke (garapen agentziak, esaterako).

→ Herrian antolatuta dauden talde, elkarte eta abarren presentzia bermatzeko moduak aurkitu behar dira.

→ Parte-hartzea ezin da formula fisikora mugatu soilik. Hainbat arrazoi tarteko, jende askok ez du honelako lan-saioetan parte hartzeko aukerarik eta, aldiz, interesa izan lezakete parte hartzeko eta haien ekarpenak oso kontuan hartzekoak izan litezke. Parte hartzeko aukerak beraz nola zabaldu aztertu egin beharko litzateke, bai eta aipatutako kontraste horiek egiteko moduak ere.

→ Hainbat proposamen “potoloegiak” dira honelako prozesuetan lantzeko (plangintzak eta abar). Agian, indar handiagoa jarri beharko litzateke, ekimen txikiagoetan edota egiteke dauden aktuzio estrategiko horietan.

→ Aurrera begira, landu egin beharko litzateke GFeko teknikariek harremana (kontrastea, informazio-trukea) izateko modua.



4. Balorazioa

- Hasieratik sortu behar da eskualde ikuspegia; gehiago mugatu beharko litzateke herrietako edo interes partikularrak baino bilatzen ez dituzten ekimenak.
- Oreekak bilatu behar dira herri txikien eta handiagoen artean, txikiek behar eta gabezia handiagoak dituztelako.
- Prozesu hauek beste dinamika batzuk sortu behar dituzte aurrera begira; esate baterako, subirautza energetikorako plangintza egitea onartu da; nola egingo da? Zer parte-hartze izango dugu herritarrok? Ideia litzateke lan-talde batzuk osatzea eta horietan herritarrek parte hartzen jarraitzea, hau da, interesa duten herritarrek eta proposamenarekin lotura duten gainerako eragileekin batera.
- Horrekin batera, jarraipenari garrantzia berezia eman diote, hau da, parte-hartzaile askok adierazi dute ekimenen jarraipena egiteko modua bermatu behar dela, erakunde publikoen eta herritarren arteko koordinazioa bermatzeko. Talde Sustatzailea izan daiteke modu bat, baina gaiari interesa duten herritarrei zabaldu beharko litzateke jarraipen batzordean aritzeko aukera. Talde bat osatu beharko litzateke udal ordezkariekin, Aldundikoekin eta herritarrekin osatutakoa.
- Talde Sustatzaileko kideen funtzioa hobeto definitu behar da; esaterako, herri txikietako kideek ordezkari izatera izan dutela aitortu dute; gainerakoek, ez. Beraz, figura hori hobeto definitu beharko da aurrerantzean.
- Partaidetzazko Udal aurrekontuak dauden herrietan, bi prozesuak uztartu behar dira, bikoiztasunik izan ez dadin.
- Partaidetza handitzeko eta aniztasuna bermatzeko lan gehiago egin behar dela uste dute, komunikazio lanean gehiago eraginez, auzoetara iritsiz, elkarrekin lan eginez...
- Prozesua bera ondo antolatua egon da.
- Zailtasunak egon diren arren, elkar entzuteko eta beste pertsona eta kolektibo batzuen premien berri izateko oso aberasgarria izan da.
- Behetik gora pentsatzen hasteko aukera eman du.
- Lan asko dago parte-hartzea zer den lantzen, barneratzen, nola parte hartu behar dugun ikasi egin behar dugu. Herritarrengana gehiago iritsi behar dugu.



4. Balorazioa

→ Prozesua diruaren banaketara bideratuegia dagoela uste duenik bada, eta aldiz, Aldundiaren funtzionamenduaz, erabakiak hartzeko moduz... eztabaidatzeko eta jarduteko aukerarik ez dagoela.

→ Eskualde izaerako proiektua izanik, herrien arteko orekak beharrezkoak dira, bestela, berriz ere, herri handien eta txikien arteko desberdintasunak areagotzeko arriskua dago.

→ Oro har, esker oneko hitzak entzun dira, aukera paregabea eman zaielako horrelako prozesu batean aritzeko, ikasteko, eta ariketa demokratiko izugarri interesgarria dela iritzi diote, oro har, partaideek. Hobetu eta sakondu beharreko eredua izanagatik ere, abiapuntu ona dela uste dute.

4.2. Talde Sustatzailearen balorazioa

Talde Sustatzailearekin egin ziren bi bilerez gain, balorazio saio bat antolatu zen, propio, euren jardunaz zein prozesu osoaz aritzeko. Hauek bertatik atera ziren ondorio nagusiak:

→ Epeak izan dira arazorik handiena. Gehiegi markatu du guztia, eta horrek zailtasunak eragin ditu, Udalekin lanketa handiagoa egiteko, herriko eragile sozial desberdinekin jarduteko, herritar gehiagorengana iristeko, proposamenetan sakontzeko, kontrastatzeko eta horiek gehiago lantzeko. Garrantzitsua da horrelako prozesu bat berriz ere abian jartzekotan, epe zabalago bat ematea, lehenago hastea lanketarekin, eta denbora gehiago eskaintzea. Herrietan ere, bilera bakarra egin da, eta horrek, neurri batean, mugatu egiten du parte hartzea, hainbat herritarrek ez dutelako eskualdeko bileretan parte hartzen, eta euren proposamenek izan duten bidea ez dute ezagutzen (zergatik baztertu diren, eskualdeko beste behar batzuk ezagutu gabe geratu dira...). Nolanahi ere, hain denbora gutxian hainbeste egin ahal izatea oso modu positiboan azpimarratu dute.

→ Metodologikoki, eskualdeko saioetan proposamenak aztertzeko denbora gutxi egin egon dela aipatu da. Jendeak ez zituen ezagutzen beste herrietan egindako proposamenak, eta tituluak irakurri (100 proposamenetik gora) eta 20 minutuan



4. Balorazioa

aukera egin behar izatea estuegia dela iritzi diote. Titulu bakoitzaren atzetik zer dagoen ezagutzeko aukerarik ere ez dagoela aipatu da. Hori hobetzeko, proposatzen da, proposamen bakoitzarekin fitxa labur-labur bat bete behar izatea, eta bileraren aurretik kontsultatzeko moduan egotea (aurrez herrietako saioetara joandakoei bidaliz, udaletan eta erreferentziazko guneetan zein webgunean kontsultatu ahal izatea...). Jendeak ez zuen informazio zehatzik bozketetan. Aldundiko teknikariek ekonomikoki kuantifikatu zituztenean, eta errealitatea hobeki ezagutzearekin, lehenetsunak eta iritziak ere aldatu ziren (plangintzen erredakziora soilik ez zedin mugatu).

→ Aldundiko teknikariek proiektuak gehiago landuko zituztela espero zen. Horiekin bilera egin ahal izatea oso interesgarria izan da. Bide horretan sakondu beharko litzateke. Talde Sustatzaileak kontrastatzeko aukerarik izan badu ere (hiru teknikarirekin elkartu ziren), bestelako herritarrek ere azalpenak entzutea aberasgarria litzateke, eta batez ere, gaizki ulertuak saihesten lagunduko luke (Zestoako bidegorriarekin, adibidez, eta bestelako proiektu batzuekin ere bai).

→ Udalak prozesutik guztiz kanpo geratu dira, eta eskualdeko errealitatea ondo ezagutzen duten eragileak diren neurrian, euren ekarpena eta ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da.

→ Proposamena orokorregia da. 500.000 euro ez da hainbeste diru. Gauzak zehazten joan beharko litzateke. Proiektu guztiei bide egin beharko litzatekeen zalantza sortzen da. Agian, proiektu mota batzuetara mugatu beharko lirateke proposamenak.

→ Aurretiaz emandako informazioa, oro har, oso eskasa izan da. Azkar egindakoa izan da, eta herritar askok ez dute prozesuaren informaziorik izan. Parte hartu dutenek ere, zertara zihoazen ondo jakin gabe parte hartu dutela azaldu dute.

→ Etxe guztietara esku-orria bidali izana oso garrantzitsua da.

→ Aurrez girotze-lana egin beharra dago, eztabaidak bideratu, aurkezpenak egin...

→ Prozesuan zehar komunikazio hori hobea izan da. Bileretan informazio egokia eman da, e-mailez ere jaso da informazioa... Talde Sustatzaileak informazioa ona izan du. Auzo eta herrietara gehiago zabaltzeko behar da, nolahi ere, informazio hori, Talde Sustatzaileak izan duen informazioa ez dutelako eduki gainerako herritarrek. Webgune txukun eta osatu bat beharrezkoa da.



4. Balorazioa

- Prozesua bera ulertzea eta horretaz jabetzea asko kostatu zaigu. Behetik gora joan behar da lantzen, auzoetatik hasita. Zestoan, adibidez, auzoak prozesutik guztiz kanpo geratu dira.
- Bozketak, ahal direla, saihestu behar dira, eta kontsentsua bilatu. Proposamenak gehiago lantzeak, eztabaidarako tarte gehiago egotea... ezinbestekoa da.
- Zenbait herritarrek oso ikuspegi pertsonala eta interesatua izan dute, eta eskualdeko edo interes orokorreko ikuspegiak ez dute izan.
- Bilerekin gain, bestelako parte-hartze bideak ireki behar dira. Informazio-guneak sortu behar dira, ekarpenak egiteko guneak edo mahaiak jarri; proposamenak lantzeko aukera eman, proposamenak sakontzea bideratuz.
- Ezinbestekoa da aurrera ateratzen diren proposamenei jarraipena egitea, horiek kudeatzea. Eta horretan, ezin da herritarren ikuspegia kanpo gelditu. Proposamenei duten filosofia mantenduko dela bermatu behar da.
- Talde Sustatzaileak norberaren herriko herritarrak ordezkatzeko ez da erraza. Herri txikietan komunikazio hori errazagoa da, handietan ezinezkoa da. Hortaz, Talde Sustatzailea aukeratzeko modua ere pentsatu behar da.
- Sinesgarritasuna edukitzeko, berebizikoa da aukeratu diren proiektu guztiak garatzea, herritarrek emaitzak ikustea. Eta bestetik, egitasmoak segida izatea. Lan bat abiatu da, eta jarraipena eman behar zaio. Jarraipenerako taldeak egin behar dira, proiektuen garapenerako, administrazioaren inplikazioa bilatuz. Herritarren partaidetzan sakontzeko baliatu behar dira (diagnostikoetan, proiektuen egikaritzean, auzolanean...). Herritarrek ezin dugu proiektuen gauzatzetik kanpo geratu.
- Beste herrietan dauden beharrak, antolatutako herritarrek dituzten premiak ezagutzeko oso baliagarria izan da prozesua.
- Eskualdeko ikuspegia gailendu da, eta hori oso modu positiboan baloratu behar da. Horretan, progresio handia egon da, eta herrietan eskualde ikuspegia gutxi landu bazen ere, bukaerarako, nagusitu egin da.
- Negoziatzen ikasi dugu.
- GFA zoriondu beharrean gara, horrelako ekimenak abian jartzeagatik, bere zailtasunekin. Ekimen polita da. Espektatibak sortu dira, eta ez dadila horretan gelditu, jarraipena izan dezala.



4. Balorazioa

4.3. Udalen balorazioa

Udalek ez dute zuzeneko esku-hartzerik izan prozesuan. Nolanahi ere, beharrezkoa ikusi zen eurekin prozesua ere baloratzea, koordinazio lana egin baita eurekin (bilera egunak, tokiak, komunikazioa...). Hauek eurek adierazitakoak:

- Prozesua ez da luzatu, oso zehatza izan da, eta hori positiboa da. Hasiera eta bukaera oso definituak egon dira, eta epeak estuki errespetatu dira. Jendeak berehala ikusi du erantzuna, eta hori prozesuaren onerako izan da.
- Presa itxura egon da. Arrapaladan egin da guztia, eta herrietan martxan zeuden beste prozesu batzuekin eta garraioa hobetzeko parte-hartze prozesuarekin denboran kointziditu du. Beste prozesuak baldintzatu ditu, eta horrek eragina izan du parte hartzaileen kopuruan.
- Proposamenak teknikoki baloratzeko ez da denborarik izan. Interesgarria litzateke herritarrekin, GFAko teknikariek, udalekin... bilerak egitea proposamenak kontrastatzeko, osatzeko, gehiago lantzeko, baina ez da horretarako denborarik izan.
- Udalek prozesuaren aurretik informazioa zehatza izan genuen. Bilera egin zen prozesuaren berri emateko. Ordezkarri politikoak eta teknikariak gonbidatu ziren, eta hori oso garrantzitsua izan zen. Herritarrei, aldiz, informazioa berandu iritsi zitzairen. Ez dugu asmatzen herritarrengana iristen.
- Egin den ahaleginerako ez du erantzun nahikorik izan.
- Esku-orriak informazio gehiegi zuen, eta herritarrentzat ez zen egokiena.
- Prozesuan zehar, Udalekin lan operatiborako harremana egon da, baina bestelako informaziorik ez. Ez da bilerarik izan, eta ez zaigu informaziorik helarazi. Aldundiarekin harremana sakondu eta hobetu egin behar da.
- Orain arte horrelako prozesuetan mugitu ez den jende bat erakarri da, eta udalek hori ikusi ahal izan dugu.
- Udalek prozesua ez dugu geure egin, komunikazioan laguntzeko, inplikazioa bilatzeko... Besteek antolatua zela sentitu dugu, eta gu ez gara inplikatu (Azpeitia).
- Udala ez da gauza izan herritarren hainbat galderari erantzuteko (Zestoa).
- Jendea xaxatu genuen, eta erantzun ona lortu genuen (Errezil).



4. Balorazioa

- Dena teknikarien esku utzi dugu. Girotzea, harrera... udalak ez du bere gain hartu, eta hori nabaritu egin da parte hartze kopuruan (Azkoitia).
- Hasierako komunikazioa ez zen egokia izan, ez zen prentsaurrekorik egin. Prozesua abiatu ondotik egin zen. Lehenago aurreikusi beharra zegoen.
- Zestoa eta Errezilen parte hartzaile kopuru altua izan da.
- Azpeitian aurreikuspenen oso azpitik egon da partaidetza, eta parte hartzaileen soslaiare ere oso zehatza izan da. Egia da, egutegian bilera asko zeuden garai batean egin zela, baina garraioaren kasuan, adibidez, gaiak ukitu ditu herritarrak eta partaidetza handiagoa lortu da.
- Zestoako kasuan, parte hartzaileetako askok helburu zehatz batengatik jardun dute, beren proiektua ateratzeko. Ez dute ikuspegi osoa eduki.
- Aurrekontuen gaia bera ez da muga herritarrengana iristeko. Benetako arazoa parte hartzeko kultura falta da.
- Talde Sustatzailearen lanketa ez dugu ikusi.
- Talde Sustatzailearen osakeraz gogoeta egin behar da, ez dira ordezkari.
- Partaidetza bultzatzeko, ezinbestekoa da proiektuak jarraipena edukitzea. Jarraipenerako batzorde bat osatzea beharrezkoa da. Hurrengo prozesua martxan jartzerako egitasmoetakoren bat exekutatzeko hastea oso garrantzitsua da.
- Azpimarratzekoa da herri eta eskualde ikuspegiaren inguruan lortu den oreka.
- Dinamika berrien eragile izan daitekeen proiektua da, batez ere aukeratu diren proposamenak ikusita.
- Herritarrek egin dituzten eskaerak ezagutzen zituzten.
- Zestoa nahasmena eragin du bidegorrien harira Aldunditik egindako txosten teknikoak.

4.4. Aldundiko teknikarien balorazioa

Abenduaren 11n ebaluazio saio bat egin zen Aldundiko teknikari taldearekin (diseinuko taldean parte hartu zutenekin eta, proposamenen azterketa teknikoan bakarrik parte hartu arren, saiora joan nahi izan zutenekin).



4. Balorazioa

- Denborari dagokionez, ezinbestekoa da herritarren epeak eta eritmoak kontuan izatea. 2014rako aurrekontu parte hartzaileak egiteko, epeak luzatu behar dira, prozesua lehenago hasita. Gehienez ere, asko jota, proposamenen lehentasunak irailerako erabakita egon beharko lukete, gero proposamenen txostenak eta analisi teknikoak egiteko astia izateko. Urola Erdiko esperientzia pilotua burutzeko ezarri ziren epeak bete direla irizten da.
- Oro har, prozesuaren garapenari buruz eman den informazioa egokia izan dela ikusten da. Herritarrek onartuak izan ez diren proposamenen buruzko informazioa ere izan behar dutela irizten da. Proposamenen eskumenen buruzko informazioa berandu heldu dela aipatu da, prozesuaren hasieratik ezagutu beharko litzatekeela eskumenen informazioa. Azkenik, erantsi da herritarrek debateak egin behar dituztela alde aurretik, proposamenak hobeto idazteko.
- Aipatu da, Aldundiak bere eskumenekoak ez diren proposamenak eskumena duten organismoen bidali beharko litzatekeela, Urola Erdiko eskualdeko herritarren eskariak ezagut ditzaten.
- Ulertzen da Batzar Nagusiek onartu behar dituztela parte hartze prozesuaren bidez Urola Erdiko eskualderako erabaki diren proposamenak, egindako lana justifikatzeko horrela. Gainera, irizten da etorkizunean gehiago inplikatu behar dutela prozesuan.
- Bestalde, Udalek gehiago inplikatu behar dute proiektuaren garapenean, Aldundiarekin koordinatuta.
- Konklusio gisa, irizten da proba pilotu hau probintzia osora zabaltzeko behar dela.
- Beharrezkotzat jotzen da Departamenturen batek edo Aldundiak berak lideratzea proiektu honen aurrekontu partida, aurrekontuen exekuzioa errazteko. Garrantzitsua da Aldundiko Departamentuen arteko koordinazioa ona izatea. Beharrezkoa ikusten da, halaber, txosten teknikoak egiteko denbora gehiago ematea, eta, beraz, landa-lana aurreratzea.
- Pentsatzen da herritarrek proposamenak aurkezteko fitxa formatu bat eduki beharko luketela, proposamena idazten lagunduko diena eta teknikariei txostena prestatzeko lana erraztuko diena.
- Teknikariek proposamena idatzi dutenengana jotzeko aukera izan behar dute zalantzaren bat dutenean.



4. Balorazioa

→ Herritarrei esplikatzea proposatzen da proiektu edo obra bat exekutatu aurretik sortzen diren gastuak.

4.5. Herritarrekin sarea. Taldearen balorazioa

Herritarrekin sarearen ordezkariekin informazio eta ebaluazioko saio bat egin zen abenduaren 11n. Usurbil, Donostia, Lasarte, Albiztur eta Tolosaldeko ordezkariak izan ziren bertan.

Prozesu osoa azaldu zen saioaren hasieran, eta egindako ebaluazioen konklusioen laburpen bat egin zen jarraian, inplikaturako gainerako agenteekin. Amaitzeko, debate eta gogoeta kolektiboa egin zen alderdi hauei buruz:

→ Partaide guztiek egokitzat jo zuten metodologia, Donostiako ordezkariak izan ezik, arretaz jokatu behar dela uste baitu, eta neurri batzuk hartu behar direla, prozesua modu irekian planteatu aurretik, emaitza eragin politikoaren mende geratzeko arriskua dagoelako. Hau da, aurkezten diren proposamenei buruzko erabakiak hartzean alderdi politikoek izan lezaketen eraginak kezkatzen du.

→ Debatearen gai nagusia izan zen zein aktorerengan zentratu beharko liratekeen saio informatiboak. Aurreikusitako agenteekin (teknikari, Aldundiko zuzendaritza, Udalen ordezkari, Batzar Nagusietako alderdi politikoekin) saio informatiboak egiteaz gain, oso garrantzitsutzat jotzen dute herritarrei informazioa ematea, prozesuaren eskualde mailako ikuspegiari dagokionean batez ere. Alde horretatik, Udaletako teknikariak eta ordezkariak presentzia handiagoa izan behar dute prozesuan zehar, herritarren eta Administrazioen arteko komunikazioa bideratzeko eta dinamizatzeko.

→ Garrantzitsua dela uste dute herritarren elkarreki edo herri mugimenduei begirunea erakustea, prozesuan inplika daitezten, proposamenak ekartzeko fasean batez ere.

→ Proposamen metodologikoa egokia iruditzen zaie. Talde Sustatzailearen osaerari buruz, saioa partaideren baten iritziz, Udaletako arduradun politikoak eta udaletako teknikariak ere sartu beharko lirateke, era horretan eskualdeko ikuspegi hobetuko litzatekeelako. Hala ere, saioan direnen gehienek iritziz hobe da politikariak kanpoan



4. Balorazioa

uztea, bilera baldintzatuko luketelako, baina ez dute baztertzeko udaletako teknikariak bertan izatea.

→ Udaletako arduradun politikoek presentzia handiagoa izan beharko lukete prozesuan, herritarren Batzarretan batez ere, sostengua erakusteko.

→ Eskualde mailan ala udal mailan lan egitea komeni den eztabaidatu zen, eta Batzarrak eskualde mailan ala udal mailan egin behar diren. Bileran diren gehienek ustez, partaidetza interesgarriagoa izango litzateke udal mailan, baina zailtasunak daude Urola Erdiko proiektu pilotua bezalako prozesuak beste eskualde batzuetan egiteko (esate baterako, Tolosaldea 28 udalerritan banatuta dago, eta gehienak 1.000 biztanletik beherakoak dira). Donostian, bestalde, 18-20 auzo daude udalerrira gisa tratatu beharrekoak.

→ Aipatzen da Batzar Nagusiek ez luketela zalantzarik izan beharko aurrekontu parte hartzailearen prozesuari sostengua emateko. Alderdi politiko guztiek bultzatu beharko lukete prozesua.

→ Eskualde guztientzat, lau hilabetetik gorako epea eman beharko litzatekeela uste dute prozesua burutzeko, nahiz eta dauden giza baliabideekin zaila izango den eskualde guztietan lortzea.

→ Oro har, egoki ikusten da 500.000 euroko zenbatekoa gainerako eskualdeetara hedatzea. Donostia alderako bakarrik ikusten da ez litzatekeela aski izango, udal aurrekontu handia duelako.

4.6. Genero ikuspegiaz balorazioa

Urola Erdiko esperientzia pilotuan genero ikuspegia txertatzeko hainbat helburu ezarri ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Departamentuarekin adostuak:

→ Prozesuan emakumeen parte-hartzea sustatzea, leku nabarmena izan dezaten, eta euren ekarpenak egin ditzaten partaidetzazko aurrekontuetan.

Emakumeen partaidetza egokia sustatzeko, deialdietan, hedapenean eta komunikazioan genero ikuspegia aintzat hartu zen, bai eta emakumeei bideraturiko espazioak erabiltzea ere, Azpeitiko Emakumeen Etxea, esate baterako (euren ekarpenak jasotzeko). Bilerak egiteko ordutegirik egokienak ere aintzat hartu dira.



4. Balorazioa

Deialdiei dagokionean, izan dugun epe mugak ez digu ahalbidetu emakumeei bideraturiko zabalkunde selektibo eta eskusiboa egiten. Nolanahi ere, emakumeen partaidetza egokia izan da. Parte hartzaileen datuak aztertzerakoan ikusi dugun moduan, Partaideen %45,6 emakumeak izan dira. Parte hartze hori, hala ere, oso desberdina izan da kanaleen arabera, adin tartearen arabera, zein herriaren arabera. Hala, herrietan egindako saioetan zein eskualdeko batzarretan, parte hartze hori izan da apalena, %38,09koa izan baita. Paperean egindako proposamenetan, aldiz, emakumeak izan dira, nabarmen, ekarpen gehien egin dituztenak, horien %65,21 egin baitituzte. Online egindakoen %33,33 izan da emakumeena. Hala ere, esan behar da, azken zenbaki hau ez dela adierazgarria, oso ekarpen gutxi jaso delako bide honetatik.

Adin tartei dagokionean ere, desberdintasunak ikus ditzakegu. 25 urte azpikoetan, partaideen %55,55ean izan dira emakumeak. 25 eta 50 urtekoen artean, berriz (partaide gehien duen adin tartearen) %39,47a; 50 eta 65 urte artekoetan %55,81; eta 65 urtetik gorakoetan %30a baino ez. Adin-tartearen erantzun ez dutenen erdia emakumeak izan dira.

Herrien artean ere alde nabariak izan dira. Hala, Azkoitian eta Errezilen, parte hartzaileen %50 izan dira emakumeak; Zestoan %47,72; eta Azpeitian eta Beizaman %30a.

Epeak ez dute ahalbidetu emakume elkarteekin eta emakumeen txokoarekin lanketa berezitu egitea.

Ordutegiari dagokionean, bilera guztiak 18:30etatik 20:30etarako tartean egin dira (Errezilgoa izan ezik, 21:00etatik 23:00etara egin baitzen). Ordutegi horrek, emakumeen parte hartzea ahalbidetu du.

→ Proposamenetan genero ikuspegia txertatzea aurreikusten da. Aldundiko Berdintasun Departamentuak lehenetsitako proposamenak berrikusiko zituela aurreikusi zen. Lehentasunak ezartzeko irizpideen artean genero ikuspegia txertatzea erabaki zen, eta Talde Sustatzaileak ere hala adostu zuen. Irizpideak proposamenak zuenduak dauden kolektiboari egiten dio erreferentzia, eta genero berdintasuna bultzatzen zuten haiek lehenesten zituen. Irizpide hori jasota ere, onartu ziren 7 proposamenetatik bakar bat ere ez da emakumeei zuzenduriko proposamena.



4. Balorazioa

Nolanahi ere, proiektuak gauzatzekoan ere txertatu beharko da genero ikuspegi hori, proposamen horiek emakumeak eta gizonak modu parekidean aintzat har ditzaten, eta emakumeen ikuspegia eta hauen beharrak aintzat hartuz. Hala, proposamenak gauzatzeko jarraipen batzordeak Aldundiko Berdintasun Departamentuaren aholkularitza eta laguntza beharko du.

→ Talde Sustatzailearen osaera parekidea. Herri bakoitzetik aukeratu beharreko bi kideetako bat emakumea izateko ahalegina egin da. Herri guztietan lortu da, Azpeitian izan ezik, bertaratutakoen artean emakume bakarra baitzegoen. Hala, 4 emakumek eta 6 gizonak osatu dute Talde Sustatzailea.

→ Proiektuaren aholkularitza taldeek genero ikuspegia aintzat hartu dute balorazio prozesuan. Eragile desberdinekin egindako balorazio-saioretan, aldiz, ez da aintzat hartu ikuspegi hori. Aldundiko teknikariek egindako balorazioan, aldiz, Berdintasun Departamentuak parte hartu zuen.

4.7. Alderdi komunikatiboaren balorazioa

Komunikazioari dagokionean, bereziki berandu ibili izana aipatu da. Proiektuak aurrera egin ahala, ordea, komunikazioa indartu egin da. Nolanahi ere, Urola erdia eskualde erraza da hedabideen komunikaziorako hainbat arrazoiengatik:

→ Eskualde txikia delako hedabide guztiek oso ondo erantzun dute.

→ Hedabide trinkoak dituztelako, herritarrek asko jarraitzen dituztenak eta gainera horiexek berta-bertakoak direlako.

→ Eskualde oso euskalduna delako eta horrek erraztu egiten du hizkuntzen tratamendua, ia dena euskaraz eginda iristen zarelako; areagoa, euskaraz ez bada nekezago iristen zarelako.

→ Informazio lokalaren kontsumoa oso handia delako eskualdean.

Horregatik helburuak erraz bete dira, eta kasu batzuetan Diputazioaren aurretik informatu dute (gauekoa batzarretako ondorioak egunean bertan jarri dituzten sarean).



4. Balorazioa

Herritarren komunikazioa, hedabideen bitartez gainera, 'paisajeen' eragiten eta batzarren deialdia atez ate eginez landu da. Paisajeari dagokionean, herritarren egindako proposamen zerrendekin hiru panel egin dira (lehen proposamenak, ondorengo aukeraketa eta zerrenda definitiboak) eta batzarretik batzarrerako tartetan udaletxe atarrietan, arkupetan ikusgai egon dira herritarren ikus zitzen.

Bestalde, batzarretara deitzeko atarrietan afitxak jarri dira Zestoa, Azkoitia eta Azpeitian. Errezil eta Beizaman buzoneatu egin da. Herritarren gehienek ekimenaren berri izan dezan saiatu gara.

Hala ere, eremu honetan zerbait gehiago egin behar da, zuzenago iristeko (elkarteen bidez, herritar jakinen bidez, jendea dagoen lekuetara iritsiz –parke, kultur-etxe, plaza, taberna, kiroldegi-...).

Girotze lanak egitea ere komeni da, ez dela erraza jakinda, baina partaidetza ahalik eta handiena izan dadin bermatu behar da..

4.8. Talde Eragilearen balorazioa

Bereziki nabarmendu da epeak errespetatu direla, oso modu zorrotzean, gainera.

Prozesuak, oro har, aurreikuspenak gainditu direla aipatu da, eta bereziki honako alderdi hauek modu positiboan nabarmendu dira:

→ Partaidetza sustatzea egikaritzekoan, oso positiboa izan da

→ Eskualde izaera gailendu da prozesuan. Hasieran ez zen hala, baina herritarrek eurek azpimarratu nahi izan dute izaera hori

→ Esperientzia pilotu gisa planteatu arren, oso positibotzat jo da alor guztietan

→ Prozesuarekin lotura zuten eragile guztiak inplikatu egin dira: udalak, Aldundiko teknikariak eta politikariak zein Batzar Nagusiak

→ Hiru hankek oso ongi funtzionatu dute: politikariek, herritarrek eta teknikariek

→ Eskualdearen neurriak asko lagundu du prozesuan. Hori kontuan hartu behar da beste eskualde batzuetara zabaltzerakoan.

→ Teknikarien inplikazioa erabatekoa izan da

→ Etxez etxe postontzietan egin den banaketak asko lagundu du



4. Balorazioa

- Talde Eragileak oso ongi funtzionatu du (Aldundiko teknikariak eta ordezkari politikoak zein bi aholkularitzak)
- Aurrekontuak onartu egin dira Batzar Nagusietan

Aurrera begira, berriz, hobetzeko artean, azpimarratu dira:

- Tokiko dinamikak gehiago hartu behar dira aintzat, eta horiekin lotura egin beharko litzateke
- Udalak prozesuaren parte sentiarazi beharko lirateke
- Genero ikuspegia modu eraginkorragoan txertatu behar da prozesuan, ikuspegi kritiko bat landuz. Orain, proiektuak gauzatzekoan bermatu beharko da proiektu horiek ikuspegi feminista dutela
- Epeak gehiago zaindu behar dira
- Komunikazioa lehenago hasi behar da
- Jende gehiagok nola parte hartu. Oso jende gutxirengana iritsi gara, eta hor eragin beharko genuke
- Talde Sustatzailearen funtzioak ongi aztertu behar dira. Ez dira herritarren ordezkari, baina bere osaera eta funtzioak birpentsatu behar dira
- Tokiko eragileekin gehiago landu beharko litzateke, parte-hartzea areagotzeko
- Tokiko esperientziak jaso behar dira, partaidetzazko batzordeetan gaia landu...
- Prozesuarekin lehenago hasi behar da. Komenigarriena, otsailean hastea litzateke
- Proposamenetan gehiago sakontzeko bideak jarri behar dira, eta horretarako, komeni da eskualdeko saioen artean denbora-tarte handiagoa egotea



5. Esperientzia hedatzea

Urola Erdian partaidetzazko aurrekontuen egitasmoa esperientzia pilotu gisa planteatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurrera begira esperientzia Gipuzkoako beste eskualde batzuetara zabaltzeko asmoarekin. Esperientzia honetatik abiatuta, aurrera begira kontuan hartu beharreko alderdi batzuk jaso ditugu orri hauetan:

5.1. Prozesuaren diseinua

Esperientzia piloturako diseinatu den prozesua egokia da, oro har, eta uste dugu abiapuntu ona dela beste eskualde batzuetara hedatzeko. Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko lirateke:

→ Eskualde izaera indartu. Eskualdeko herrietako bakoitzean saio bana egin da, eta eskualde izaerako bi saio egin dira. Nolanahi ere, kontuan izan behar da 5 herriz osatutako eskualdea izan dela, bi herri handi eta beste hiru txikiagoz osatua. Eskualde handiagoetara hedatzerakoan, kontuan hartu beharrekoa da herri guztietara zabaltzeko esperientzia, edo eskualde izaera eduki behar duen proiektuak. Era berean, balorazioetan azpimarratu da eskualdeko izaera horrek herrietara itzuli beharko lukeela, baina zalantzan jartzen dugu horren bideragarritasuna, bereziki eskualde handiagoetan bilera kopurua asko egin beharko liratekeelako, eta eskualdeko bileren zentzua bera galdu egingo litzatekeelako. Herrietako saioak baztertu gabe, eskualde izaera indartu behar dela iruditzen zaigu, are gehiago kontuan hartuta proiektuei ere izaera hori eskatzen zaiela.

→ Eskualde mailako hirugarren saio bat. Proposatutako saio kopurua, oro har, oso egokitzat jo dute parte hartzaileek, nahiz eskualde mailako hirugarren bilera bat lantzea gaizki ez legokeela ere iradoki den, batez ere, proiektuak aurkeztu eta horietan sakontzea errazteko. Proposamenak bateratu eta osatzeko bidea bermatu beharko litzateke prozesuan zehar.

→ Tarte gehiago prozesurako eta saioen artean. Hiru hilabetetan egin da prozesu guztia. Ongi baloratu da denboran gehiegi ez luzatu izana, eta hasiera eta bukaerako datak argiak izatea, baina aldi berean, arrapaladan joan izanaren sentsazioa izan dute partaideek. Gainera, komunikazio ez da behar bezala garatu ahal izan, eta bestetik,



5. Esperientzia hedatzea

herritarrek egindako proposamenak sakontzeko eta beste eragile batzuekin kontrastatzeko ez da astirik izan. Horrelako prozesu baterako lau edo bost hilabete aurre ikustea komeni da, batez ere, aurrelanak ongi prestatu ahal izateko (udal erakundeekin koordinazioa, komunikazioa...).

→ Prozesuak uda aurretik burutu. Epeena da gehien azpimarratu den alderdia, eta oso kontuan hartu beharrekoa esperientzia hedatzerakoan. Urola Erdiko esperientzia pilotua epe jakin batean egin da, eta data aldetik oso estua izan da prozesu guztia. Gainera, aurrekontuen emendakinen epean sartu dira proposamenak, zuzenketa moduan. Aldundiak bere aurrekontuetan proposamenak zehaztuta eramatea litzateke egokiena, eta horrek, halaber, uztailerako prozesuak bukatzea eskatzen du. Beste alde batetik, hainbat udal ari dira partaidetzazko aurrekontuen esperientziak hedatzen, eta hauek udazkenean garatu ohi dituzte prozesuak. Horrek, bi prozesuak (Aldundiarenak eta udalenak) gainezartzea dakar.

Udarako prozesuak bukatua egon behar balu (Aldundiaren aurrekontua osatzen denerako), prozesuak otsaila eta martxoaren artean hasi beharko luke.

→ Udalen inplikazioa handitu. Prozesuaren diseinuan udalei ez zaie zeregin zehatzik eman. Arlo praktikorako baino ez da eurekin hitz egin (informazio orokorra eman, lekuak, egutegiak, ordutegiak... zehaztu, eta komunikazio-lanak egin). Inplikazio handiagoa lortu beharko litzateke, batetik, herritarren parte hartze handiagoa bilatze aldera, eta bestetik, proposatutako proiektuetan sakontzeko (kontraste-lana egin, informazioa osatu, proposatutako lan-ildoetan ari diren kontrastatu, aurre-proiekturik edo bideragarritasun-planik ba ote dagoen aztertu...). Gainera, udalak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak izaki, instituzioen arteko elkarlana oso aberasgarria suerta daiteke prozesuarentzat berarentzat.

→ Eskualdeko eragile eta erakunde estrategikoen inplikazioa lortu. Bestelako instituzio edo erakunde batzuen inplikazioa bilatzea ezinbestekotzat jo da, eta horien artean gehien aipatu direnak garapen-agentziak, mankomunitateak eta ikastetxeak izan dira. Komunikazio orokorra egin da eurekin, baina prozesuaren hasiera-hasieratik euren inplikazioa eta konplizitatea bilatu beharko litzateke, eskualdeko izaera eduki ohi dutelako, batetik, eta bertako eragile erreferentzialak diren neurrian, lehen eskuko



5. Esperientzia hedatzea

informazio interesgarria dutelako. Gainera, aurrera aterako diren proiektuen egikaritzean ere ekarpen handia egin dezakete, eta kudeaketaz arduratu.

5.2. Komunikazioa eta hedapena

→ Ondo landu prozesua hasi aurreko komunikazioa. Partaidetzako prozesuek arrakasta izan dezaten, komunikazioa gako garrantzitsua izan ohi da. Ezinbestekoa da prozesuaren fase guztietan aintzat hartzea, baina berebizikoa bihurtzen da prozesua hasi aurreko komunikazioa behar bezala lantzea. Herritarren parte hartzea sustatzeko hainbat kanal erabili behar dira, eta horrezaz gain, prozesuaren helburuak eta herritarrei eskatzen zaiena argi eta garbi adieraztea ezinbestekoa da (bilera kopurua, bileren izaera, erabaki ahalmena...).

→ Etengabe zaindu komunikazioa. Hasieran ez ezik, prozesuan zehar ere komunikazioa zaintzea garrantzitsua da, batetik, parte hartu duten herritarrei begira, baina baita gainerako herritarrengana iristea ere, hartzen diren erabakien berri izan dezaten, eta prozesuaren faseetan ere atxikimendu berriak lortzeko. Komunikazio hori are gehiago indartu beharko da aniztasuna eta kopurua zabaltzeko beharra antzematen denean.

Jakina den bezala, prozesuaren bukaerako komunikazioa ere zaindu beharrekoa da. Herritarrek hartutako erabakiak egoki zabaltzea kontuan hartu behar da, bai eta horiek egikaritzerakoan komunikazio-lanak bideratzea ere.

→ Bermatu herrian antolatuta dauden talde eta erakundeen inplikazioa. Antolatutako taldeengana iristeko ahalegin berezia egin behar da, eta hauen bidez bestelako herritar batzuegana iristeko bideak landu beharko lirateke. Horretan udalen konplizitatea eta inplikazioa lortzea berebizikoak dira. Komunikazio hori egoki lantzeak prozesua arrakastatsu gertatzea edo ez eragin dezake.

5.3. Egiturak

Prozesuak izan dituen egiturak egokiak direla irizten diogu. Horien osaeraz zenbait gogoeta egin badira ere:



5. Esperientzia hedatzea

⇒ Ondo definitu Talde Sustatzaileko kideen figura. Talde Sustatzaileko kideek ez dute inor ordezkatzeko, baina herrietako bakoitzetik bi ordezkari hautatzeak, nolabait, herritar horien ordezkariak esleitzen die. Herri txikietakoek, bereziki, bertan landutakoa transmititzeko zeregina sentitu dute. Talde horren funtzioak hobeki zehaztu beharko lirateke, eta batez ere, bertako kide izateko beren burua eskaintzen dutenei argiago utzi zein izango diren euren zereginak eta zein konpromiso hartzen duten.

⇒ Erreparatu ordezkari-kopuruari. Urola Erdia eskualdean 5 herri izanik, eta herri bakoitzetik bina ordezkari hautatuz, 10 lagunez osatu da taldea. Lanerako neurri egokia izan du taldeak. Baina bere funtzionaltasuna bermatu nahi bada, ez da komeni talde hori handiagoa izatea. 10 herri baino gehiagoko eskualdeetan kide horiek nola hautatu pentsatu beharko litzateke.

⇒ Koordinazio-taldea. Udal ordezkarien eta bestelako erakunde batzuetako kideen inplikazioa bilatze aldera, koordinazio-talde bat eratu beharko litzateke. Koordinazio talde horren osaera (egungo talde eragilearen funtzioak ere bere gain hartu ahal izango lituzke) zehaztu beharko litzatekeen arren, udal, mankomunitate eta garapen agentziako hautetsi eta teknikariz, Aldundiko eta aholkularitzako kideez osatua egon beharko luke.

⇒ Jarraipenerako batzordea. Prozesuan zehar argi geratu da parte-hartzea ezin dela mugatu proposamenak egiteko fasera, eta horiek gauzatzeko orduan ere kontuan hartu beharrekoa da herritarren partaidetza bermatzea. Horretarako, gainera, eskualdeko bileretan zein Talde Sustatzailean, jarraipenerako batzorde bat osatzea proposatu da, Aldundiko eta udaletako kideekin eta gaian interesa duten herritarrekin osatua, proiektuak osatu eta ikuspegi parte-hartzailea gehitze aldera.

5.4. Metodologia

Proposatu diren metodologiak egokiak izan dira, oro har, eta hala adierazi dute prozesuan zehar parte hartu duten kideek. Herritarren parte hartzea sustatu egin da, eta bertaratu direnak eroso sentitu dira, eta garrantzitsuena, modu aktiboan parte hartu izan dute.



5. Esperientzia hedatzea

Gainera, kopuru handi batean lortu da bestelako bideak erabiliz ekarpenak jasotzea. Nolanahi ere, oso agerikoa izan da bileretan zein paperean edo interneten egindako proposamenen edukiei erreparatuta, batzuen eta besteen arteko aldea. Aurrera egin dutenak (bideragarritasun tekniko zein ekonomikoagatik, nagusiki) herrietako batzarretan jorratutakoak izan dira.

→ Bilatu parte-hartze modu berriak. Partaidetza modu berriak lantzeko premia agerian gelditu da, eta bileretara joan ezin duen edo joan nahi ez duen jendeare ere aukera eman behar zaio. Hala ere, aipatu behar da, ekarpenak jasotzeko modua soilik hasierako fasean aurreikusi dela. Lehentasunak ezarri, proiektuak aukeratu eta bozkatu, soilik bilera presentzialetan egin ahal izan da. Aurrera begira jorratu beharreko gaia da hau, nola egin fisikoki bertaratzen ez denak prozesuan parte hartzea, eta hausnartu egin behar da balio bera eduki dezakeen, talde lanean bakarka lantzen ez diren hainbat balio agertzen direlako (adibidez, arestian aipatu dugun eskualde ikuspegia ez litzateke, inondik ere, modu berean jasoko etxetik parte hartu balu jendeak).

→ Parte-hartze fitxa sintetiko eta erakargarriagoak. Paperean zein internetez proposamenak egiteko fitxak orrazteko beharra ere badago. Jendeak titulu soil bat (askotan bizpahiru hitz baino ez), eta modu oso orokorrean, gainera, idazteko joera du. Ideia hori sakontzeko modua erraztu behar lukete fitxa horiek, detalle gehixeago jaso, eta ideia garbiago azaltzea ahalbideratuz. Internet bidez zein herrietan jarritako postontzien bidez jaso badira ere, ona litzateke herriko elkarte, eragile eta pertsona erreferenteen bidez jende gehiagorengana iristea fitxa horiek, eta lan hori egiteko konplize edo laguntzaile sare bat osatzen joatea.

→ Indartu eskualde izaera. Herrietako saioetan herrietako beharrak nagusitu zirela antzeman da, eta eskualdeko izaera gutxiago landu izana aipatu da. Ahalegin berezia egin zen partaideei hori transmititzen. Prozesuan zehar eboluzio argia izan da horretan, eta partaideek eskualdeko askoz ere ikuspegi argiagoa izan dute bukaeran hasieran baino. Neurri batean normala eta naturala bada ere, ahalegin berezia egin behar da hasieratik ikuspegi hori gehiago garatzen, bereziki eskualde izaera hori hain errotua ez duten eremuetara zabaltzerakoan esperientzia. Prozesuan zehar eztabaida piztu da soilik eskualdeko izaerako proiektuak landu behar ote ziren edo ez.



5. Esperientzia hedatzea

Azkenean, irizpideetan erabaki zen lehentasun handiagoa eskualde izaerari ematea, baina herrietako beharrak ahanzi gabe, bereziki behar gehien dituzten herrienak.

→ Indartu GFAko teknikarien inplikazioa. Talde Sustatzaileko kideek oso ongi baloratu dute Aldundiko teknikariek izandako harremana, eta oso baliagarria eta argigarria izan dela baloratu dute. Aintzat hartu beharreko kontua dela irizten diogu, eta esperientzia hori bera eskualdeko bileretara zabaldu daitekeela uste dugu, partaideentzat oso argigarriak direlako, bereziki, bideragarritasuna zalantzan jartzen den kasuetan. Instituzioa eta honen funtzioak eta funtzionamendua ulertzen oso lagungarri gertatu dira, eta prozesu honek herritarrei demokrazian sakontzeko helburua ere baduen neurrian, jorratu beharreko bidea da.

→ Proiektuaren izaera eta dimentsioa. Diru-kopuruaren muga ikusirik, prozesuan zehar agertu den beste zalantza bat proiektuen izaerari dagokiona da. Nagusiki, plangintzetara dirua bideratu behar ote den ezbaian jarri da. Herritarrek ikusgarriak diren emaitzak jaso nahi izan dituzte, eta ez bideratu diru-kopuru hori planak idaztera. Zehaztasun maila horretara beharbada ez da iritsi beharko, baina hausnarketarako uzten dugu proiektuen izaera eta dimentsioa mugatu beharko ote litzatekeen (proiektu bakarrera bideratu ahal izango litzateke diru guztia?). Horrelako proiektu handiek, gainera, mobilizazio-gaitasun bat eduki dezakete, bestelako batzuek ez dutena lortzen, eta emaitza orokorra distortsionatu.

→ Herri bakoitzeko herritar kopurua egokitzeko hausnarketa egin. Agerian geratu da herri bakoitzetik parte hartzen duen herritar kopuruak proiektu batzuen edo beste batzuen alde egiteak ekar dezakeenaren kezka. Herrietako proiektuei bide egin behar bazaie, herri txikietako biztanleak kexu dira ez dutela aukera berdintasunik (Beizamatik bi lagunek parte hartu dute eskualdeko bileretan, Zestoatik 20 eta 30 artean). Herri bakoitzetik bi proiekturik bozkatuenak aukeratu ziren eskualdeko lehen bileran, baina bigarrenean ez zegoen bermatzerik herri bakoitzeko proiektu bat aurrera aterako zenik. Gai hau arautu beharko litzateke, herrietako proposamenek leku izango duten edo ez zehazteko, eta lekua izanez gero, gutxienerako batzuk bermatuko diren edo ez argitzeko.

→ Bozkatzeko sistema hobetu. Eskualdeko lehen bileran herritar bakoitzak bost proiekturik gustukoena aukeratu zituen, eta horietako bakoitzari 1etik 5era bitarteko



5. Esperientzia hedatzea

puntuazioa eman. Horrek ere distortsioak eragin ditu, eta proiektu zehatz baten alde puntuetako bat baino gehiago eman ahal izan zen (adibidez, bidegorriari, 5 eta 4 puntuko txartelak eman). Horregatik, bozketaren sistema ezbaian jarri duenik izan da.

5.5. Parte-hartzea

⇒ Ahalegin berezia herrian antolatuta dauden talde eta erakundeetako kideak inplikatzeko. Hobetu beharreko arloa da, bereziki herri handienetan. Txostenean zehar agertu dugun moduan, arrazoi asko daude parte-hartze kualitatiboa baloratzekoan, besteren artean, parte hartzeko ohitura, komunikazioa hobetu beharra, udalen inplikazioa, edota bestelako parte-hartze prozesu batzuekin kointziditu izana. Baina horiek denak aintzat hartzekoak badira ere, herritarren parte-hartzea sustatzeko ahaleginean jarraitu beharra dago. Eta ahalegin horretan, dagoeneko antolatuta dauden herritarrak giltzarri dira. Batetik, horien parte hartzeak ikuspegi anitzagoa bermatzen duelako, eta bestetik, jende gehiago ordezkatzeko dutelako. Baina ez soilik horientatik, baita, gehienetan, pertsona horiek erreferenteak direlako herrietan, eta beste pertsona eta talde batzuegana iristeko ahalmen handia izaten dutelako eta jorratzen dituzten gaietan “adituak” direlako eta gehienetan udalarekin eta gainerako erakundeekin harremanak izaten dituztelako.

⇒ Definitu eta adostu hizkuntza-irizpideak Prozesua eremu oso euskaldun batean garatu da, eta hizkuntzen tratamenduak ez du inolako arazorik eragin, parte-hartzaile ia guzti-guztiak (bat izan ezik) euskaldunak izan direlako, eta ondorioz, bilera guztiak eta dokumentazio guztia euskara hutsez egin ahal izan dira. Nolanahi ere, hori ez da ohikoena, eta hizkuntzen tratamendua aintzat hartu beharreko elementua da, bileretan bertan, zein proposamenak itzultzen aritu behar izanez gero horrek eskatzen duen ahalegin, kostu eta denborari dagokionean.

